# anboto

DURANGALDEKO ASTEKARIA
2014ko martxoaren 21a
12. urtea
538. alea
www.anboto.org
TOKIKOM


## Kultura

Mikel Laboaren sorkuntzan oinarritutako 'Zazpi aldiz elur' ikuskizuna taularatuko du Tanttakak San Agustinen > 11



MODA GEHIGARRIA

# Autzagane beharrean, Muniketa igoko dute Zornotzako duatloian, domekan

Extrem Zornotza txirrindulari klubak Zornotzako V. Duatloia antolatu du domekarako. Obren eraginez, ibilbidea moldatu du

Zornotzako duatloian 200 eta 250 parte-hartzaile artean biltzea itxaroten dute Extrem Zornotza klubeko kideek. Irteera puntua San Miguel kalean egongo da, eta helmuga, berriz, Zelaieta parkean. Emakumeen lasterketa 10:30ean irtengo da, eta gizonena ordu laurden beranduago. Parte-hartzaileek 10 kilometro egingo dituzte korrika, 44 bizikletan eta beste 5 korrika. Aurten, Muniketa birritan igoko dutenez, bizikleta tartea gogorragoa izango dela aurreratu dute antolatzaileek. > 16



## Bonbardaketa oroimenean

Martxoaren 31n 77 urte beteko dira faxistek Durango suntsitu zutenetik. Aurtengo egitarauan makiak izango dira protagonista. > 2-3

1937ko martxoaren 31n, bonbardaketaren ostean, Durango sutan. Gerediaga Elkartea







**Durangaldea > 4**
Belodromoko azpiegituren segurtasuna indartu dute

**Mañaria > 6**
Hileta zibilak egin ahal izango dira udaletxean, plazan eta frontoian

**Atxondo > 8**
Gerediaga-Beasaineko obren kalteak salatu ditu udalak

**Iurreta > 6**
Maspe eta Bixente Kapanagako pasabidea berriztuko du udalak

# Herririk herri

> DURANGO

## “Herri honi memoria eta identitatea lapurtu diote”

Francisco Martínez Leon-Galiziako gerrillako kideak Durango bisitatuko du

> JONE GUENETXEA

**1936-1951 artean hainbat gizon eta emakumek gerrillarekin bat egin zuten. Maki izenagaz ezagunak egin ziren. Gerra amaitu zenean ere, borrokan jarraitu zuten. Francisco Martinez ‘Quico’ (Leon, 1925) Bierzo inguruko gerrillan aritu zen. Durangora etorriko da, martxoaren 26an, bere bizipenetan oinarritutako filmaren osteko mahai inguruan parte hartzera.**

**Zelan egin zinen gerrillako kide?**

Nire gurasoen etxea gerrillaren bizilekua zen. Hori horrela izanda, nik ere gerrillari laguntzen nion. 1947an, 22 urtegaz gerrillako kide egin nintzen, ekintza batzuetan poliziak harrapatu eta gero. Nik ihes egin nuen, baina beste taldekide batzuei Ihesaldi Legea aplikatu zieten.

**Zelan bizi zineten gerrillan?**

Bierzo inguruan ibiltzen ginen. Gehienbat hiri-gerrilla zen. Ponferradako hirigunean ere bizi ginen, baita inguruko herri txikiagoetan ere, herritarren etxeetan. Txandaka ibiltzen ginen hara eta hona. Hiritik herrietara aldea zegoen. Herri osoak zeuden gerrillaren alde. Erresistentzia talde gehienak bateratu zituen Leon-Galiziako Gerrillen Federazioa ere Ponferradan sortu zen. Herria antolatzea borrokaren helburuetako bat zen. Informazio zerbitzu errepublikarra zeritzona ere sortu genuen.

**Gerrillari laguntzen zieten familiekin zelako hartu-emana zenuten?**

Gerrillariak etxera etortzen zirenean eta, beranduago, ni taldeko kide egin nintzenean, bi kasuetan sentitzen nintzen gerrillari. Gainera, lehenengo kasuan arrisku handiagoagaz, Ihesaldi Legea kolaboratzaileei gehiagotan aplikatu zietelako, gerrillariei baino. Solidaritatea osoa zen.

**Frantzian erbestea ezagutu duzu.**

Sei taldekide ginen. 1951ko maiatzean Girón hil zutenean, eta beste taldekide bat harrapatu zutenean, Frantziara ihes egitea erabaki genuen irailean. Lau taldekide Frantziara pasatu ginen. Bat hil egin zen, eta beste hirurok memoriaren erreskate lana egiteari ekin diogu.

> “Ahozko lekukotasunak bildu gura ditugu frankismoaren gezur erraldoiari aurre egiteko”

**Zenbat urte eman dituzu erbestean?**

40 urte egon naiz Frantzian. Franco hil zenean berehala etorri nintzen kideak bisitatzera, eta nire herrikideak ikustera. Horrek harremana mantentzea erraztu zidan. Baina lan egin beharra nuen erretiroa hartu arte, Espainiara etorri orduko. Hiru alaba ditut Frantzian. Parisko Historia Garaikideko Nazioarteko Artxibategian dihardu euretako batek lanean, eta errepresioaren inguruko testigantza ugari jaso ditu.

**Urteen joan-etorriagaz memoria historikoaren inguruan zein iritzi duzu?**

Herri honi memoria eta identitatea lapurtu diote. Trantsizioan negoziatu zuten. Francok historia deformatu zuen, kontra geundenok bidelapurrak bagina bezala tratatuta. Milaka eta milaka lagun hil zituen. Oraindik batzuk bide izkinatan daude. Trantsizioan ezkerrak negoziatu egin zuen frankismoarekin, eta uko egin zion ondare horri. Egia historikoak edozein ildo politikorentzat balio du. Herri honetan jaiotzen den edonork eskubidea du jakiteko herri honetan XX. mendean zer gertatu zen.

**Durango ezagutzen duzu?**

2000. urtean memoriaren karabanarekin bisitatu genuen. Archivo, Guerra y Exilio (AGE) taldeagaz gerrillarien proiektua martxan jarri dugu. 40 lagun inguruko karabanak martxan jarri ditugu, eta bizpahiru bider estatu osoa zeharkatu dugu. Durangon, Gernikan eta Bilbon ere egon ginen. Ahozko lekukotasunak jaso gura ditugu frankismoaren gezur erraldoiari aurre egiteko. Lekukotasunik barik gezurrak aurrera jarraitzen du. Horregatik, bizipenak jasotzea oso garrantzitsua dela uste dugu. Gertatutakoa ezagutu gura dugu. Arin egin beharreko gaia da, jende askok egia historikoa argitzeari ez dio-eta garrantzirik ematen. Ditudan urteak izan arren, helburu horrek mugitzen nau memoria historikoa jasotzera.



Francisco Martinez ‘Quico’ pelikularen grabaketan.




## Makien bizimodua ezagutzeko filma

‘La guerrilla de la memoria’ filma San Agustinen proiektatuko dute, martxoaren 26an, 19:00etan

Francisco Martinezek maki garaian bizi izan zituen gertakariak jasotzen ditu Javier Corcuerak zuzendutako *La guerrilla de la memoria* (Oria Films, 2001) filmak. Historia horren protagonista bera San Agustin kulturguneko film emanaldira hurreratuko da martxoaren 26an, 19:00etan.

AGE elkarteko beste bi kiderekin mahai ingurua antolatu du Gerediaga Elkarteak martxoaren 31ko egitarauaren barruan. Amparo Sánchez Monroy Espainiako errepublikanoen seme-alaben elkarteko lehendakaria eta sortzailea izango da beste hizlaria. Mahai ingurua Dolores Cabrak zuzenduko du, arriskuan dauden dokumentuak berreskuratzeko artxibozain eta adituak.

Laguntzaileak:
BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia Kultura Saila
Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du
Abadiño Atxondo Berriz Durango Elorrio Garai Iurreta Izurtza Mallabia Mañaria Otxandio Zaldibar Zornotza
Eusko Jaurlaritza Gobierno Vasco
Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa

anboto komunikabideak
Bixente Kapanaga, 9
48215-Iurreta
(Bizkaia)
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org
2014ko martxoaren 21a, 12. urtea - 538. alea

**Zuzendaria:** Jone Guenetxea.
**Administrazio burua:** Itziar Belar.
**Administrazioa:** Miren Abasolo eta Nagore Aranburu.
**Publizitatea:** Goretti Alonso, Amaia Huarte, Itxaso Altuna.
**Erredakzioa:** Aitziber Basauri, Itsaso Esteban, Joseba Derteano. Markel Onaindia, Amaia Ugalde eta Maialen Zuazubiskar.
**Maketazioa:** Eider Alberdi.
**Zuzentzailea:** Jon Ander Urkiaga.
**Argazkilariak:** Kepa Aginako, Zaloa Fuertes.

Lege gordailua: BI-2268/01 ISSN: 1578-7028 Tirada: 10.600 ale

# 77 urte beteko dira Durango bonbardatu zutenetik

## 1937ko martxoaren 31n hasitako erasoan 330 lagun baino gehiago hil zituzten



Irazabal eta Irigoras, udaletxean emandako prentsaurrekoan.

**> MARKEL ONAINDIA**

Martxoaren 31n 77 urte beteko dira 36ko gerran italiar faxistek Durango eta Elorrio bonbardatu zituztenetik. Durangon hainbat egunez iraun zuen erasoak, eta 330 herritar baino gehiago hil zituzten sarraski hartan. Handik urte bira Francok gerra amaitutzat eman zuen, eta 40 urtean luzatu zen diktadura zabaldu zen. Baina, errepublikazale batzuek mendira jo, eta erresistentzian jarraitu zuten. Makiak ziren. Aurtengo ekitaldietan, besteak beste, borrokalari horiek hartuko dituzte gogoan. Gerediaga Elkarteko Jon Irazabalek eta Aitziber Irigoras alkateak eman dute egitarauaren berri. Gerediagagaz batera Kriskitin ere ibili da egitaraua lantzen. Martxoaren 26an *La guerrilla de la memoria* pelikula ikusi ahal izango da, eta hilaren 28an *Camaradas*; biak 19:00etan, San Agustinen. 30ean, kanpaiak joko dituzte 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

Irigorasen berbetan, "hurrengo belaunaldiei ondarea eskualdatzea" da udalaren helburua. Memoria lantzea aldarrikatu du, "horrelakoak berriro ez gertatzeko". Umeei begira, hilaren 30ean Leire Bilbao idazleak *Gerrak ez du izenik* liburuan oinarritutako bideo-irakurraldia egingo du San Agustinen, 18:00etan. 31n, goizean mural bat margotuko dute, eta eguerdian irrati tailerra egingo dute.

Urtemuga egunerako antolatu dituzte ekitaldi esanguratsuenak. 20:00etan, bonbardaketan hildakoak oroitzeko ekitaldi zibila egingo dute Andra Marin. 12:00etan, Durangoko Udalak antolatutako ekitaldia egingo dute kanposantuan. Ez erasoaren biktimen omenez, 36ko gerraren biktima guztien omenez baizik.

> Leire Bilbaoren liburuan oinarritutako bideo irakurraldia egingo dute San Agustin kulturgunean

Kriskitinek, bere aldetik, *Erbestea aberri* ikuskizuna taularatuko du martxoaren 29an, 20:00etan, San Agustin kulturgunean. Kriskitineko arduradunek azaldu dutenez, "joan zen urteko Zilar Astean eskainitakoaren segida da".

## Bilduko Eider Uribe lanordu osora dabil lanean, udalean

**> AMAIA UGALDE**

Orain arte liberaziorik ez dute gura izan, baina lan karga handia dela-eta, zinegotzia liberatzea erabaki du Durangoko Bilduk. "Udalekoaz gainera, kaleko lana ere egin gura dugu; eragileengana hurbildu, eurekin egon, eta euren beharrak entzun", azaldu du Eider Uribek. Lanordu osora, baina alderdiei dagokien erdia kobratuta hartu du liberazioa Uribek. Durangoko alderdietako liberatuen soldata 56.009,80 eurokoa da. Aralarreko Iker Urkizak %60 kobratzen du, eta Eider Uribek %50 kobratuko du.


Eider Uribe Padilla, Bilduko zinegotzia.

# Film laburren lehian parte hartzera deitu du Zapaburuk

## Martxoaren 29an eta 30ean izango da film lehiaketa

**> M.O.**

Zapaburu gazte konpartsak *Zaping* film laburren lehiaketa antolatu du martxoaren 29rako eta 30erako. Iratxe Delgado eta Mikel Gandarias konpartsakideek azaldu dute aisialdiko eskaintzan hutsunea dagoela, eta horri erantzutera datorrela lehiaketa: "Inoiz ez digute ezer eskainiko. Goazen gu sortzera kontsumituko duguna".



Delgado eta Gandarias, Pinondon.

Hilaren 29an 15:00etan batuko dira Pinondo Etxean, eta bertan banatuko dituzte grabaziorako gaia eta oharrak. Hurrengo eguneko 15:00etan entregatu beharko dira film laburrak; gau horretan ordua aldatuko denez, 23 ordu edukiko dituzte beharrerako. 18:00etan Fray Juan de Zumarraga institutuan proiektatuko dituzte lanak, eta sariak banatuko dituzte. Parte-hartzaileek martxoaren 26a baino lehen eman behar dute izena, *zapaburukonpartsa@gmail.com* helbidera idatzita.

Gazteen arteko hartu-emana sendotu gura dute. Delgadok esan du "denak batera egotea eta ezagutzea" dela helburua. Eta sortzen jarraituko dute, Gandariasen berbetan: "Jendeak ikusiko du sinesten dugula gure aisialdi ereduan, ondo pasatzen dugula". Ideiak proposatzeko deia egin du Delgadok, eta gazteen jarreran konfiantza dauka: "Gazteok badaukagu mugitzeko gogoa".

# Mandela gogoan Arrazakeriaren Kontrako Astean

## Bihar ipuin kontalaria egongo da Udal Liburutegian

**> M.O.**

Arrazakeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna da gaur, martxoak 21. Efemeridearen harira, hainbat ekintzaz betetako jardunaldia antolatu du udalak, eta Arrazakeriaren Kontrako Astea antolatu du. Egitarau horretan badago nabarmentzen den protagonista bat: Nelson Mandela. 2013ko abenduaren 5ean hildako Hego Afrikako presidente ohia hartuko dute gogoan.

Martitzenean hasi zuten jardunaldia, Mandelaren inguruko dokumental bategaz. Bihar, 5 urtetik gorako umeentzako ipuin kontalaria egongo da Udal Liburutegian; *Los cuentos africanos de Nelson Mandela* liburua hartuko dute oinarri. Martxoaren 27an, *The 12 disciples of Nelson Mandela* pelikula emango dute liburutegian, 18:30ean.

> Martxoaren 27an, 'The 12 disciples of Nelson Mandela' pelikula emango dute

Bestalde, Aniztasunaren Eskolaren barruan, Alfonso Duboisek berbaldia eskaini zuen atzo. Datorren martitzenean migratzaileei borondatezko itzuleraz informatzeko berbaldia egongo da, 18:00etan, Elkartegian.






> DURANGO

# Gasteizerako linearen alegazioak batzordean erabakiko dituzte

Durango-Gasteiz linearen alegazioak batzordean erabakiko dituzte, eta ez ibilbideko herriekin batera



Madalenan gelditzen da Durango-Gasteiz lineako autobusa.

> AMAIA UGALDE

Hasi da Durango-Gasteiz lineako kontratazio berriko baldintza-agiriei alegazioak aurkezteko epea. Alegazio horiek beste udalekin batera aurkeztu edo ez eztabaidatu dute Durangoko osoko bilkuran. EH Bilduk (Bilduko eta Aralarreko zinegotziek) elkarlan horren alde egin du, eta EAJk eta PSE-EEk alegazio propioak landu gura dituzte.

EH Bilduk aurkeztutako mozio baten haritik hasi da eztabaida osoko bilkuran. Batetik, autobus zerbitzuaren kontratuan Bizkaiko Foru Aldundiak esku-hartze handiagoa izatea nahi du koalizioak, eta, bestetik, ordutegiak berraztertzea, eta horiek baldintzetan ezartzea.

Arabako Foru Aldundiak autobus linearen lizitazio prozesua martxan ipini duela, eta oinarrietan "atzerapausoak" daudela adierazi dute Aralarreko eta Bilduko zinegotziek. Beste alderdiek ere hobekuntzen premia ikusten dute, baina alegazioak lantzeko moduan desadostasunak dituzte.

Aitziber Irigoras alkatearen berbetan, "alegazioak ez dira bat-batean asmatzen. Batzordeetan eztabaidatu behar dira". Durango-Gasteiz linea igarotzen den beste herrietako udal arduradunekin batera prentsaurreko bat emateko proposamena jaso du alkateak, baina ez du onartu. "Erakunde moduan jokatuko dugu, erakundeei dagozkien tresnekin, eta batzordeetan alegazioak landuta".

**PSE-EEren mozioa aurrera**

Bestetik, PSE-EEk EH Bilduren alegazioari testu alternatiboa aurkeztu dio, eta EAJk mozio hori babestu du. Testuaren arabera, udalak konpromisoa hartu du autobus zerbitzuaren lizitazioari alegazioak aurkezteko. Arabako eta Bizkaiko foru aldundiei erakundeen arteko elkarlanerako formula bat planteatu dezatela ere eskatu diete.

PPko Juan José Gastañazatorrek dioenez, lizitazioen oinarrietan "hobekuntzak" aurreikusten dira: "Arabako alderdi guztiek onartu dituzte pleguak".

## Aste Santuan ere umeentzako egonaldia egingo du Berbarok

> MARKEL ONAINDIA

Berbaro elkarteak ume eta gazteentzako aisialdi eskaintza euskalduna antolatu izan du urtero, udarako. Aurten, lehenengoz, Aste Santuan ere eskainiko du zerbitzu hori 2004 eta 2010 urteen artean jaiotakoentzat. *Aste Santuan Olgetan* lelopean, apirilaren 14tik 25era garatuko dituzte ekintzak: tailerrak, jolasak eta sukaldaritza, esaterako. Egonaldien ordutegia 09:00etatik 13:30era izango da.

Martxoaren 31a baino lehen apuntatu beharko dira interesdunak, Berbaroren bulegoan –Pinondo Etxean–. Berbaroko bazkideek 70 euro ordainduko dute, eta bazkide ez direnek 90. Egun solteetan joateko aukera ere badago; bazkideek 12 euroan edukiko dute aukera, eta gainerakoek 15 euroan.

> DURANGALDEA

## Ekainaren 8ko giza katerako metroa eskuragai hainbat herritan

> JOSEBA DERTEANO

Erabakitzeko eskubidearen alde lanean diharduen Gure Esku Dago dinamikak Durango eta Iruñea (123 km) giza kate bategaz lotzea gura du ekainaren 8an. Egun horri begira, dinamika sustatzeko taldeak sortu diren herri guztietan metroen salmenta komuna egingo da domeka honetan. Adibidez, Durangaldeko hainbat herritan eskuratu ahalko da metroa: Abadiñon, Berrizen eta Iurretan.

Abadiñon metroa eskuratzeko gune bi atonduko dituzte domekan, 12:00etatik aurrera: Traña-Matienako Trañabarren kalean eta Zelaietako Txanporta kultur etxearen ondoan. Metroak ez ezik, kamisetak ere lortzeko modua egongo da. Bestetik, Berrizen ere metroa, kamisetak eta informazioa egongo dira eskuragarri 12:00etatik aurrera, Olakueta plazan. Berrizek Elorrio, Zaldibar, Ermua eta Mallabiarekin osatu behar du kilometroa. Zornotzan, aldiz, domekan 12:00etatik 14:00etara egongo da metroa eskuratzeko aukera Politenako arkupeetan. Kamisetak ere salduko dituzte.

Azkenik, Iurretan metroen salmenta zapatuan egingo dute, domekan beharrean. 11:00etatik aurrera postu bat ipiniko dute Azkondo kaleko biribilgunearen ondoan. Era berean, otzara baten zozketarako errifak ere eskuragarri egongo dira.

> DURANGALDEA

# Belodromoko obrak amaitu dituzte

Segurtasun neurrriak indartzeagaz batera, beste kirol batzuetan jarduteko egokitu dute azpiegitura

> J.G. / J.D.

Marino Lejarreta Berrizko belodromoko lanak amaitu ditu Amankomunazgoak. Azpiegituretan eta barrualdean egindako hobekuntzetan 188.877 euro inbertitu ditu. Belodromoaren sarbidean eta pistaren erdian asfaltoa jarri dute. Amankomunazgoko arduradunek azaldu dutenez, horrela, beste kirol batzuk praktikatzeko aukera izango da: patinajea, esaterako. Horretaz gainera, barandak eta beste elementu batzuk margotu dituzte, eta oinezkoentzako ate berriak jarri dituzte. Gune berrian, oinezkoen bide bat sortu dute pistatik inguruko espaloira heltzeko. Pista osoa garbitu, eta likenak eta hezetasuna kentzeko tratamendua egin dute.

Oskar Zarrabeitia Amankomunazgoko presidenteak azaldu duenez, "egin dugun inbertsioa oso beharrezkoa zen, bertan kirola egiteko segurtasuna ez zegoelako bermatuta". Instalazio hauetan goi mailako kirolariek entrenatzen dutela gogoratu du Zarrabeitiak. Gaineratu duenez, orain arte kotxeak derrapatzera sartzen ziren, baina jarri dituzten ate berriekin ezingo dira gehiago sartu. Lanek jarraipena izango dute: bizikletentzako aparkalekuak aldatuko dituzte, eta argiztapena berriztuko dute.

Berrizko belodromoak hainbat erabiltzaile ditu. Kirolariez gainera, Durangaldeko ikastetxeetako ehunka ikasle joaten dira txirrindularitza ezagutzera.


R. Mena (C.C. Belódromo Duranguesado) eta O. Zarrabeitia (Amankomunazgoa).

> BERRIZ

## Trenbideko pasaguneak kentzeko beharra gogoratu dute

> M.O.

Trenbideko pasaguneak kentzeko beharra gogoratu zuten Berrizen, eguazteneko udalbatzarrean, Francisco del Pino (PSE-EE) zinegotziak bultzatuta. PSE-EEko kideak mozioa aurkeztu zuen Eusko Trenbide Sareari, eta Ingurugiro eta Lurralde Politika Sailari pasaguneak kentzeko eskatzeko, eta aho batez onartu zuten gainontzeko zinegotziek. Berrizen bost pasagune daude guztira.

Onartu arren, EAJk eta Bilduk mozioaren eraginkortasuna zalantzan ipini zuten. Orland Isoird alkateak (EAJ) gogoratu zuen Lurralde Zati Planean barneratuta dagoela gai hori, udalak eginiko alegazioei esker; gaur egungo eremua baino apur bat goragotik lurperatuko litzateke trenbidea. Baina Eusko Jaurlaritzak egin beharreko obra hori oso garestia izango da, eta gaur egungo egoera ekonomikoak ez du laguntzen. "Milaka milioi euro ez dute bat-batean inbertituko".

Xabier Zalduak (Bildu) adierazi zuen imajinatzen duela ez gaudela makro obren sasoian. Baina Eusko Jaurlaritzak dirua beste proiektu batzuetan gastatzen duela kritikatu zuen: "Nahiago du AHTan inbertitu".

Durangon lurpetik doa trena 2012ko abendutik, baina berriztarrek, momentuz, itxaron egin beharko dute.

## Aitor Agirre jeltzaleak zinegotzi kargua utzi du

> M.O.

Eguaztenean ospatutako ohiko udalbatzarrean zinegotzi kargua utzi zuen Aitor Agirre jeltzaleak. 2011ko udal hauteskundeetarako EAJk aurkeztutako zerrendan bosgarren lekuan egon zen Agirre, eta udalean jesarlekua lortu zuen. Beraz, ia hiru urtez ibili da udalean beharrean; Gobernazio eta Kontu Batzordeko kidea izan da.

Kargua uztearen arrazoia pertsonala dela eta ez politikoa azaldu zuen Agirrek udalbatzaren aurrean. "Nire alderdiagaz zerikusirik ez duten gai pertsonalengatik utzi dut kargua".

Udalbatzarrean onartuta, erabakiaz informatuko dute orain. Bere ordezkoa izendatzeko prozesua ere abiatuko dute.

> Ia hiru urtez ibili da udalean beharrean; Gobernazio eta Kontu Batzordeko kidea izan da


Aitor Agirre zinegotzia.

# Harrison
HOTEL - RESTAURANTE

## *Izan ezazu eztegu esklusiboa gure Pergolan!*








Harrison Etxean etapa berri bati ekin diogu Puntuan Konsulting turismo-enpresaren eta haren zuzendari Jaime Pagairen agindupean. Bai enpresak, bai zuzendariak eskarmentu handia dute sektorean, San Roque Komentu Hotelaren ardura ere baitaukate.

Harrison Etxea leku ezin hobean dago, Zornotzaren bihotz-bihotzean, eta lorategiz inguratuta. Estilo ingelesean apaindutako 12 logela ditu, baita hainbat areto ere, besteak beste, beirate handiko Pergola. Bertan, 200 lagunentzako lekua dago, "Chill out" eremu eta guzti, eta aproposa da mota guztietako ekitaldiak antolatzeko: ezteguak, bataioak, jaunartzeak, biltzarrak… Edo, besterik ez bada, mokadutxo bat jateko eta tragoren bat hartzeko.

San Pedro, 12
48340 - Amorebieta - Bizkaia - Tfno.: 946 300 530
**www.hotelharrison.com**
hotelharrison@hotelharrison.com

*Harrison hotelaren eskutik bi pertsonarentzako afaria eta gaua zozkatuko ditugu*

**Durangoko bonbardaketaren zenbagarren urteurrena beteko da aurten?**

**ERANTZUNA:** ***zozketa@anboto.org*-ra edo Anboto astekarira - Bixente Kapanaga, 9 - 48215 Iurreta**
Aurreko zozketako irabazlea: **Aintzane Gaztelu-Urrutia.** Zorionak!

> IURRETA

# Maspe eta Bixente Kapanaga arteko tunela berriztuko dute

Pasabidea komunitatearena izan da orain arte, baina udalaren esku utzi du, bertan hobekuntzak egiteko

> AMAIA UGALDE

Besteak beste, zorua aldatu eta horma berriak ipiniko dituzte Maspe eta Bixente Kapanaga kaleen arteko pasabidean. 1978an inguruko etxebizitzak egin zirenetik dago pasabidea bertan, eta hobekuntza premiak ikusita, Iurretako Udalak akordioa lortu du komunitateko kideekin, bertan obrak egiteko. Orain arte komunitatea izan da pasabidearen jabea, eta doako lagapen bidez udalarena da orain.

Pasabide horretatik, besteak beste, anbulatoriora eta jubilatuen etxera igarotzen dela nabarmendu du Iñaki Totorikaguena Iurretako alkateak. Zerbitzu horietara hurreratzeko bidea labainkorra da, eta Maspeko sarreran, esaterako, sarbidea zailtzen duen koska bat dago. Obrekin, espaloia eta pasabideko zorua lotuko dituzte, eta gres portzelanikoa ipiniko dute pasabideko zoruan. Hormak ere guztiz aldatuko dituzte, eta sabai faltsua ipiniko dute. Argiztapen berria ere jarriko dute.

### 55.000 euroko kostua

Lanek 55.000 euro inguruko kostua izango dutela azaldu du Iñaki Totorikaguenak. Aurrekontuak Aste Santu ostean eztabaidatzea aurreikusi dute, eta onartuko balira, orduan hasiko litzateke obra lizitatzeko prozesua.



Iñaki Totorikaguena alkatea udalak konponduko duen pasabidean.

> IZURTZA

## Irastorza bigarren bider jubilatuen elkarteko presidente

> JOSEBA DERTEANO

Joan zen domekan, urteko batzar orokorra egin zuten Erdoitzako Andra Mari jubilatuen elkartean. Elkartea 29 lagunek osatzen dute, eta 20 batu ziren batzarrera. Besteak beste, zuzendaritza batzordea berritu zuten; sei lagunez osatua dago, eta bi urterik behin berritzen dute. Seitik lauk karguan jarraituko dute datozen urte bietan: Karmelo Irastorza presidenteak, Miren Irigoras presidente ordeak, Rebeca Barandika idazkariak eta Ludi de la Verdura batzordekideak. Horrela, Irastorzak bigarren bider segidan eramango du elkartearen gidaritza. Zuzendaritza batzordera batu diren kide berri biak, aldiz, honako hauek dira: Maria Luisa Zufiaurre diruzaina eta Mila Albistegi batzordekidea.

> MAÑARIA

# Hileta zibilak egin ahalko dira udaletxean, plazan eta pilotalekuan

Joan zen astean udalbatzak aho batez onartutako ordenantza berriagaz, hileta zibilak egin ahalko dituzte hemendik aurrera Mañariko biztanleek

> MARKEL ONAINDIA

Hemendik aurrera hileta zibilak egin ahalko dituzte mañariarrek. Udalbatzak aho batez onartu zuen ekimena joan zen barikuan, eta 30 eguneko alegazio epearen ostean sartuko da indarrean. Ordenantza berriaren arabera, udaletxeko pleno aretoan, plazan eta pilotalekuan egin ahalko dira hileta zibilak. Endika Jaio alkateak adierazi zuen ekitaldi horiek egiteko ohiturak aldatzen dabiltzala aspaldian, kutsu erlijiosoaz apartekoak ere egiten direla: "Beharrizan bat dago udaletik ase behar dena". Horregatik erabaki zuten ordenantza bat sortzea.

### Eskubidea, erroldatuek

Zenbait arau zehaztu dituzte ordenantzagaz: zein lekutan egin, zeinek daukan eskubidea eta udalak zer eskainiko duen, esaterako. Hildakoak Mañarian jaioa izan beharko du, edo bertan erroldatuta egon beharko du, eta salbuespen bakarra, lehen mailako senide bat herrian erroldatuta egotea izango da. Udalak atril bat, megafonia, mahaia eta aulkiak ipiniko ditu familiaren eskura. Udaleko ordezkari bat egongo da beti. Hilotza ezingo da egon hiletan bertan, baina errautsak bai. Gainera, errautsak herrigunearen inguruan ezingo dira zabaldu.

Momentuz doan izango da, eta 2015eko zergak aztertzean erabakiko dute zer tasa ipini.

> ABADIÑO

# Umeen Dantzari Eguna antolatzen dihardute

Eguneko ekitaldietan parte hartuko duten umeak bazkaritarako hartzera animatu dute jendea

> ITSASO ESTEBAN

Durangaldeko 460 ume batuko dira, apirilaren 6an, Traña-Matienan ospatuko duten umeen dantzari egunean. Egun osoko egitaraua antolatu du auzoko Iluntze dantza taldeak egun horretarako: Traña-Matienan kalejira egingo dute goizean, bazkaritarako batuko dira gero, eta Alardea eskainiko dute, 17:00etan, Traña plazan. Besteak beste, Iluntze taldeko 3 eta 17 urte arteko 44 dantzarik parte hartuko dute ekitaldietan.

Eguneko ekitaldietan parte hartuko duten beste herri batzuetako dantzariei bazkaritarako lekua bilatuko diete antolatzaileek. Taberna eta txokoetan elkartuko dira hainbat dantzari bazkaltzera, eta herriko etxeetan hartuko dituzte beste hainbat ume. Deialdia luzatu dute, bazkalorduan umeak etxean hartzeko prest dagoen jendeak izena eman dezan: martxoaren 28ra arte, Hezgarri eta Petite liburu dendetan eta Errota kultur etxean eman daiteke izena.

> GARAI

# 60 bat musikari batuko dira Txistulari Egunean

Domekarako sortutako koruak parte hartuko du



30 bat txistulari batuko dira domekan, Garain.

> M.O.

Durangaldeko 59. Txistulari Eguna ospatuko dute domekan, Garain. Jaizale txistulari elkarteak antolatuta eta udalak babestuta, Elizabarrin egingo dute kontzertua, 12:30ean. Horren aurretik, San Migel elizatik kalejiran joango dira Elizabarriraino. Kontzerturako 60 bat musikari batuko dira; horietatik 30 izango dira eskualdeko txistulariak. Euregaz batera, domekarako beren-beregi Garain sortutako abesbatzak parte hartuko du.

Alex Agirrebeitiak zuzenduko du hamabi piezako kontzertua. Carlos Sánchez-Barba zaldibartarraren eta Jose Ignacio Abasolo iurretarraren moldaketa bi ere joko dituzte. Ostean, dantza saioa egingo dute.

> ZALDIBAR

# 'Zaldiberri' aldizkariaren 20 urteak ospatzeko

Castet Elkarteak erakusketa antolatu du biharko

> I.E.

Zaldibarko Ezker Abertzalearen *Zaldiberri* aldizkariaren lehenengo alea kaleratu zutenetik 20 urte direla ospatzeko, erakusketa antolatu dute. Besteak beste, bihar, 12:00etatik 13:30era, Castet Elkartearen egoitzan ipiniko dituzte hamarkada biotan kaleratuko ale guztiak ikusgai.

Urtean *Zaldiberri* aldizkariaren ale bi banatu izan dituzte herriko buzoi guztietan, 20 urte hauetan. Bertan, Zaldibarko Ezker Abertzalearen inguruko hausnarketak eta iritziak plazaratu dituzte, askotariko gaiak jorratuta; udalgintzari zein kulturari buruzko gaiak, esaterako.

Sei hilabetero kaleratzen duten aldizkariaren osagarri izango den webgune berriaren aurkezpena ere egingo dute bihar. Aurreratu dutenez, astero berrituko dituzte *www.zaldiberri.info* atari horretako edukiak. Webgunea aurkeztu ostean, luntxa egingo dute elkartean.

> ELORRIO


Bilduko zinegotziak, udaletxean emandako prentsaurrekoan.

# Bildu: "EAJk hauteskundeetako botoetan bakarrik pentsatzen du"

Bilduren ustez, hauteskundeak dira EAJren inbertsioak ulertzeko modu bakarra

> MARKEL ONAINDIA

Bilduren ustez, "EAJk ez dauka herri ikuspegirik". Koalizioaren ustez, gobernu taldearen gestioa ez da ona izan. "EAJ harro agertu da zenbat diru aurrezten ari zen, eta gutxi barru udalaren zorra kitatuko zuela azalduta". Baina, diotenez, zor hori jeltzaleek sortu zuten Asuaren agintaldian, eta aurrezkia ez gastatzearen ondorio da: "Herritarrek zergak ordaindu, eta udalak dirurik gastatu ez".

Udal hauteskundeetarako urtebete bakarrik falta da, eta Bilduren iritziz hori da EAJren inbertsioak ulertzeko modu bakarra: "EAJk erabaki du ez gastatzearen sasoia amaitu dela, datozen hauteskundeak irabazteko asmoz. Hauteskundeetako botoetan bakarrik pentsatzen du". Aurten gobernu taldeak 3.380.000 euro inbertituko dituela, eta horretarako zorpetu egingo dela salatu dute. 1,6 milioi euroko mailegua eskatu du udalak, Elizaldeko kanpoko igerilekuen proiektua (1,3 milioi euro) eta Ibarrako zubiaren obra (1,1 milioi euro) estaltzeko. Etxe bi eta lursail bat ere saldu ditu igerilekuen kostuari aurre egiteko. Bilduk adierazi du EAJk ez daukala igerilekuen bideragarritasuna bermatzen duen ikerlanik, eta etorkizuneko egoera ekonomikoan eragin dezakeela ohartarazi du. Inbertsioen zentzua ez dute ondo ikusten Bildukoek. Enpresen itxiera, industria arloko arazoak eta merkatarien zailtasunak "obrez egindako benda batekin" estali gura izatea leporatu diote EAJri.

EAJk promesak ez dituela bete dio Bilduk: guztien alkate izatea eta diru publikoa zaintzea.

### Oposizio "suntsitzailea"

EAJren erantzuna ere irmoa izan da. Bilduk oposizio "suntsitzailea" egiten duela diote jeltzaleek. "Barregarria da udal barruan babestu dituen proiektuen aurka agertzea jendaurrean". EAJren ustez, Ibarrakoagaz egin dute hori. Zorra, aurreko legealditik jasotakoa dela diote, eta amortizatzea lortu dutela. "Ondoren, geldikina erabili barik bi proiektu estrategiko hauei aurre egiteko zorpetzeko gaitasuna daukagu". Soberakina erabiltzea baino egokiago ikusten dute zorpetzea. Bilduren kritikaren aurrean, ANVren legealdian 14 milioi euro gastatu zirela adierazi dute EAJkoek. Gainera, ez dituzte ulertzen "bizi-kalitatea hobetu behar duten bi proiektu hauen kontra Bilduk dauzkan arrazoiak". Igerilekuen bideragarritasun azterketa egina dagoela eta partaidetza prozesu bat garatu zela ere gogoratu dute.

EAJk helburu bakarra daukala esan dute: "Elorrio hobea eraikitzea guztiontzako".

> MALLABIA

# Kobrea ostu guran, gizonezko bat atxilotu dute Goitondon

> AITZIBER BASAURI

Gizonezko bat atxilotu zuen Ertzaintzak astelehen goizaldean, Mallabiko industriagune bateko enpresa batean lapurretan harrapatu ondoren. Lapurra zuloa eginda sartu zen enpresara, eta 30 bloke kobre eroan zituen.

Polizia iturrien arabera, Mallabiko Goitondo industrialdean herritarren segurtasun lanak egiten ziharduen Ertzaintzaren patruila bat enpresa bateko horma batean zuloa eginda zegoela ohartu zen. Metro gutxira 30 bloke kobre zeuden batuta. Lapurreta horren arduradunak bertatik egon zitezkeelakoan, enpresa ingurua aztertzen hasi ziren agenteak, beste polizia batzuekin batera.

Gaineratu dutenez, herritarren laguntzari esker, gizon bat aurkitu zuten inguruko ortu batean, Ertzaintzarengandik ezkutatu guran. Ertzaintzak 39 urteko gizonezkoa atxilotu du. Jakinarazi dutenez, Ertzaintzak hamahiru bider atxilotu du dagoeneko, eta dagokion diligentzia poliziala amaituta epailearen aurrera eroan zuen.



> ATXONDO

# Errepide berriko lanek Markoidako zubian eta argiterian kalteak eragin dituztela salatu du udalak

## Kale-argien kableak apurtu dituzte, eta Markoidako zubitik kamioiak berriz hasi dira igarotzen

> JOSEBA DERTEANO

Gerediagan hasi eta Beasaineraino helduko den errepide berriak Atxondo zeharkatuko du. Besteak beste, biaduktu handi bat egiten dabiltza, errepide berria Elorrioko saihesbideagaz lotuko duena. 2012ko udazkenean hasi zituzten lanak, eta iazko azaroan udalak prentsaurrekoa eskaini zuen hainbat irregulartasun salatzeko. Harrezkero, lau hilabete joan dira, baina, oraindik, orduan salatutako kontu batzuk ez dituztela konpondu dio gobernu taldeak.

Esaterako, Markoida inguruan badago zubi zahar bat, balio historikoa duena. Inguru horretako lurrak mugitzerako orduan "kamioiek ez dute zubi horretatik igarotzeko baimenik", Rosa Elizburu alkatearen esanetan. Iaz salatu zuten zubi horretatik kamioiak pasatzen direla, eta "orain berriro hasi dira igarotzen", Elizburuk salatu duenez. Horren ondorioz, inguruko kutxatila bat ere apurtu dute: "Bizkaiko Foru Aldundiak esaten du gauzak ondo egiten dabiltzala, eta ez dagoela irregulartasunik obretan, baina Atxondori modu batera edo bestera aspalditik eragiten diote lanek".

Era berean, lanen ondorioz Hirumet ingurutik Katalinako bihurgunera arteko kale-argiak argi barik daude azken aste bietan. Herriko argiteriaren mantentze-lanak udalaren ardura dira, eta zer gertatzen zen aztertzera joan zirenean ohartu ziren "biadukturako oinarriak eraikitzen ari ziren inguruan argiteria kableak apurtu" zituztela langileek. Batetik, kableak apurtu zituztenean, "gutxienez zer gertatu den abisatu ez izana" salatu du Elizburuk. Bestetik, gaur bertan Bizkaiko Aldundian lanak eragiten ari diren kalteen berri emateen duen idatzi bat sartu du udalak. Idatzian Aldundiari eskatzen dio Markoidako zubian zein hainbat kale-argitan errepideko lanek eragindako kalteak konpontzeko.


2012ko udazkenean hasi zituzten errepide berriko lanak.

# 4.400 euroko superabita utzi du udal kontuen iazko likidazioak

## Asteleheneko udalbatzarrean eman zituzten datuak

> J.D.

Asteleheneko ohiko udalbatzarrean 2013ko likidazioak utzitako emaitzak azaldu zituen gobernu taldeak. 2013ko likidazioak egin ostean, gastu orokorretarako udalari geratu zaion soberakina 4.400 eurokoa dela adierazi zuen.Udalari dirua zor dietenen zenbateko osoa 351.300 eurokoa da. Bestalde, Atxondoko Udalak altxortegiko fondo likidoan duen kopurua 287.366 eurokoa izan da.

Udalak ere baditu apurka ordaindu beharreko zorrak –kredituak, adibidez–, eta udalak hartzekodunei ordaindu beharreko zenbateko hori 290.800 eurokoa dela zehaztu zuten udalbatzarrean. Bestalde, udalari dirua zor dietenen zenbateko guztiak ez dituzte multzo berean batu. Tartean, urte askoan pilatu diren zordun batzuen zorrak daude (trafiko isunak, adibidez) eta dudakoa da udalak zenbateko hori inoiz jasoko duen. Beraz, zor horiek kitatuko diren ez denez segurua, beste atal batean jaso dute kopuru hori: 332.036 euro dira, guztira. Horiek horrela, jaso behar duena eta zorrak alderatuta, 4.400 euroko superabitagaz itxi du iazko urtea Atxondoko Udalak.


Udalak zor duen zenbatekoa, eta udalari zor diotena jakinarazi zituzten.

> OTXANDIO

# Vallecaseko RPG-7 taldearen berbaldia eta musika gaur

> J.D.

Musika kontzertuak eta berbaldi bat egongo dira gaur, gaztetxean, Otxandioko gazte asanbladak antolatuta. Jaialdiaren helburu da "gaur egun ezarritako sistemak gizartea kontrolatzeko dituen askotariko baliabideak eta moduak salatzea eta plazaratzea". Horrela, Madrilgo RPG-7 musika taldeak gai hori jorratuko du 18:30ean hasiko den berbaldian. Vallecaseko taldeak bertako errealitatea eta bizipenak kontatuko ditu. Ondoren, 22:00etan, kontzertua eskainiko du Habemus Papa eta Legutioko Boot Boys taldeekin. Kontzertuetarako sarrera nork bere borondatez emandakoa izango da.

## SEI HANKAKO MAHAIA

DANI MAEZTU
Aralar



### (In)Konpetentziak

Durangoko azken osoko bilkuran bi gai soilik eztabaidatu ziren, EH Bilduk aurkeztutako bi mozio, hain zuzen ere. EH Bilduk mozioak aurkeztu ezean, legez derrigorrezkoa denez bilkura deitzea, 15 minutu udaletxean pasatzeagatik 60 euroko dieta kobratu, eta etxera joango ginen 21 zinegotziok. 29 mila biztanle duen herri batean zer eztabaidatzerik ez omen dago PNVren gobernu taldearen ustez.

Mozio bi Kirolene eta Durango-Gasteiz autobusaren inguruan. Bietan ere eskumenen edo konpetentzien gaia (aitzakia) atera zen. Kiroleneren inguruan, PNVk, PPk eta PSEk konpromisorik ez hartzeko, ez dela udal konpetentzia argudiatu zuten. Imajinatzen duzue, argudio berdina, osasun zentroen kasuan, epaitegiaren, hizkuntza eskolaren edo eskola publikoaren gaietan?

Osasuna, hezkuntza edo justizia ez dira udal konpetentziak, baina eskualdeburu den zerbitzu herri batean, zerbitzuak eskaintzeaz gain, hainbat lanpostu sortzen dituzte, eta hainbat jende Durangora ekarri ere. Inkonpetentzia agerian uzten duen aitzaki merkea konpetentziena.

Durango-Gasteiz autobus zerbitzua ez da udal eskumena, baina hor esku hartzea erabaki zuen PNVk. Izan ere, Batzokitik baimena eman diote gai hori astintzeko, baina ez gainerako udalekin lanketa bateratua egiteko; praktikan askoz ere eraginkorragoa izan daiteke ibilbideko udal guztiek batera jardutea, baina argazkian beste batzuen ondoan agertzea ez dute gustukoa. Gainera, beste udal guztiak Bildukoak dira. Oso langile eta eraginkor, bistakoa da.






ZORNOTZA

# Musika eta bertsoak bihar, Gazte Egunean

Iazko lehen aldiak jasotako harrera onaren ostean, biharko berriro antolatu dute Gazte Eguna



Iaz antolatu zuten lehenengoz Gazte Eguna, Zornotzan.

>JOSEBA DERTEANO

Zornotzako Gazteak elkarteak askotariko ekitaldiez osatutako Gazte Eguna antolatu du biharko. Iaz antolatu zuten lehenengoz, eta orduko "harrera onak" aurten ekimena errepikatzera animatu ditu, Zornotzako Gazteak elkarteko Enara Lauzirikak azaldu duenez.

Zelaieta Parkean elkartuko dira 13:00etan, eta txupinazoa botata emango diote hasiera egun osoko jaiari. Gune hartan erraldoiak eta joaldunak egongo dira giroa animatzen, guztiak herrikoak.

Ondoren, 15:00etan, bazkaritara batuko dira parke gorrian atondutako karpan. Iaz 300 lagunetara mugatu zuten bazkaria, eta eskaera handia egon zenez, batzuk txartela erosi ezinik geratu ziren. Horregatik, kopurua 350 lagunetara handitu dute. Bazkalostean bingoan jokatu ahalko da, eta, ondoren, bertsolari bik saioa eskainiko dute: Ander Gerrikaetxebarria zornotzarrak eta Txaber Altube abadiñarrak.

Segidan, kalejira bat antolatu dute parke gorritik abiatuta. Kalejira hori Gasteizko Ttek! elektrotxarangak animatuko du; Luis Urrengoetxeako ostalariek lagundu diete txaranga hori ekartzen. Ametx erakundeak ere lagundu die hainbat azpiegiturekin.

Gazte Eguna musika kontzertuekin amaituko dute. 21:00etatik aurrera, Arratia eta Zornotzako kideek osatutako Zeinke, Abadiñoko Kruders eta Zornotzako Zirkinik Bez taldeek zuzenekoa eskainiko dute parke gorriko karpan. Zeinkek etorri ezin duen Blanco y en botella taldea ordezkatuko du.

## Euskotrenen gordailu batek su hartu zuen martitzen gauean

> J.D.

Martitzen goizaldean, 05:45 inguruan, su hartu zuen Zornotzako tren geltokiaren ondoan dagoen material gordailuak. Ertzaintzak susmoak bakarrik ditu sutearen arrazoien inguruan. Ertzaintzaren arabera, lapurreta saiakera bat egon liteke guztiaren atzean: "Gordailuko kableetako kobrea lapurtzen saiatuko ziren, baina kobrea ez denez erretzen, kableari su emango zioten, ondoren barruko kobrea erateko. Baliteke suaren kontrola galdu, eta lapurrek ihes egin izana, ez zutelako ezer eraman".

## Barnetegia Aste Santuan ere irekita, euskara ikasleentzat

> J.D.

Aurten, lehenengoz, Aste Santuko egunetan irekita egongo da Zornotzako Barnetegia. HABE erakundearen euskara azterketak zein bere baliokideak prestatzeko aukera eskainiko du apirilaren 21etik maiatzaren 4ra arteko aste bietan. Gura duenak, bi beharrean, astebeteko eskolak izango ditu aukeran. Barnetegiko arduradunen esanetan jende askok eskatu die Aste Santuko eskola horiek antolatzeko, eta horregatik hartu dute erabakia. Izen-ematea apirilaren 17ra arte dago zabalik: *info@zornotzakobarnetegia.com*.

## DURANGALDEA ASTEON

### Udalak esan du laster amaituko direla Landako eta Zabalarra ikastetxeetako obrak

**LANAK >** Durangoko Landako eta Zabalarra ikastetxeetan obrak egiten dabiltza azkeneko hiru hilabeteetan. Landakon, kirol pistako aterpea aldatu dute, berdegunea jolasgune ere izateko egokitu dute, eta eraikineko sarbidea hobetu dute. Zabalarran, atzeko patioko areto-futboleko zelaia asfaltatu dute, jolaserako aterpea itxi dute, harmailak ipini dituzte futbol zelaiaren eta aterpearen artean, eta igogailua konpondu dute.

### Eskubide Sozialen Karta aztertzeko batzarra, 26an

**EZTABAIDA >** Durangon ere hasi dira Eskubide Sozialen Karta sortzeko eztabaidan. Martxoaren 12an egin zuten lehenengo batzarra, eta hurrengoa datorren eguztenean izango da, hilaren 26an. Berez, eguazten honetan egin behar zuten, baina atzeratu egin dute. Hauek izango dira azterketarako gaiak: lan eskubideak, eskubide ekonomikoak, aniztasun sexuala eta emakumeen kontrako indarkeria. 18:30ean batuko dira Pinondon.

### Mugikortasun segurua bultzatu gura dute adinekoen artean

**TAILERRA >** Adinekoei zuzenduriko sentsibilizazio kanpaina antolatu dute Durangoko Udalak eta STOP Accidentes elkarteak, Bizidun elkartearen laguntzagaz. Kanpaina horren bitartez, errepidean, gidari zein oinezko, jarrera segurua edukitzearen garrantziaz ohartarazi gura dituzte adinekoak. Martxoaren 11n egin zuten kanpainako lehenengo tailerra, eta 26an egingo dute bigarrena: *Gaurkotu, hobeto gidatzeko* izenburukoa.

### Bete egin dira Iurretako Kimuak elkartearen hiru udalekuak

**AISIALDIA >** Udalekuen eskuorria eskolan banatu zutenetik, ahoz aho ibili da egunotan udalekuetan izena emateko epea hasi dela. Arrakasta izan dute udalekuek. Kimuak aisialdi elkartekoek azaldu dutenez, prestatutako hiru udalekuak bete egin dira. Erdiko adin tartean zabaldu egin zuten eskaintza: 50entzat izatetik 120 gaztetxorentzat izatera igaro da. Itxarotezerrenda luzea duten arren, ez dute jende gehiago hartuko.

## Iritzia

### Eskerrik asko eta laster arte!

Ederra izan zen. Bizpahiru aste lehenago kartela egin, eta zabaltzeko prest. Bezperan afaria egiteko prest. Afalaurretik dekorazioa, pantaila, mahaiak, aulkiak eta abarrak ipintzeko prest. Afalorduan jana eta edaria zerbitzatzeko prest. Afalostean gaiak zein bertsoak bota eta jasotzeko prest, euskaraz gozatzeko prest. Eta bertso saioaren ostean, erabilitako guztia garbitu eta batzeko prest. Jende prestu asko prest. Eskerrik asko pasa den barikuko bertso afaria posible egin zenuten guztioi. Eta eskerrik asko Platerueneko lagunei berriz ere elkarlanean jardutearren. Elkarrekin, auzolanean, errazago ibiliko dugu bidea, Durango eta Euskal Herri euskalduna eraikitzeko bidea. Beste barik, ez ahaztu euskaltzaleok apirilaren 5ean Gasteizen daukagula zita. Laster arte, ondo eta euskaraz bizi!

Endika Blanco Bravo
Durangoko Euskal Herrian Euskaraz

**astekaria@anboto.org**
asteartea 17:00ak arteko epea

**Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:**
Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta
• Izen-abizenak • telefonoa • helbidea
• Nortasun Agiriaren zenbakia

**-DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-**
Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

Anbotok ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitakoen eta emandako iritzien erantzukizunik.

# Berbaz

**Joxe Arregi Olaizola** | Frantziskotar ohia, Deustuko Unibertsitateko irakaslea | Azpeitia, 1952

# *"Fedearen inguruko gogoeta egiten eta zabaltzen jarraitzen dut"*

Joxe Arregi Olaizola frantziskotar ohiak hitzaldia eskainiko du Elorrioko Arriola antzokian, datorren martxoaren 27an, 20:00etan. Elizaren inguruan plazaratu dituen adierazpenek fraidetza eta teologia irakaskuntza utzi beharra eragin diote.



Argazkipress.

**> JONE GUENETXEA**

**Zer da zuretzako Arantzazu (Oñati)?**

Nire bizitzako bilakaeraren ispilua ikusten dut Arantzazun. Han eman ditut 17 urte, hiru garaitan: umetan 3 urte, gaztetan 7 eta helduaroan beste 7. Hiru mundu, hiru eliza, hiru teologia. Gure familia oso Arantzazu zalea zen, aitaren eraginez, eta ume-umetatik joaten ginen denok urtean behin hara. Urte guztiko ilusiorik handiena zen. Hainbeste fraide abitua jantzita, meza nagusi haiek, mezako kantu haiek, dena latinez, dena misteriotsu… Eta familia osoaren zorion hura! Amets habia zen Arantzazu, zerutik hurbilago lurretik baino. Eta haraxe joateko, fraide eta apaiz izateko ametsa sartu zitzaidan barru-barruan. Zer amestu zezakeen handiagorik nintzen baserritartxo sentibera eta txintxo hark?

**Noiz joan zinen Arantzazura?**

1963an joan nintzen, hamar urte nituela. Batxilergoa eta filosofia ikasi eta gero itzuli nintzen bertara, 19 urterekin. Mundua aldatu egin zen bien bitartean, eta ni ere bai neurri batean. Fedearen inguruko zalantzak nituen. Kritikoa nintzen. Fedea mundu modernoarekin uztartu nahi nuen. Euskara eta euskal kultura biziki maite nituen. Horren guztiaren ikur zitzaidan Arantzazu. Eta 50 urterekin berriro Arantzazura. Nire mundu ikuspegia eta teologia oso bestelakoak ziren orduan. Arantzazu ere bai kanpotik, baina barrutik ez hainbeste. Han eman nituen fraidetzako azken 7 urteak. Gaur ere, leku zoragarria eta maitagarria da niretzat, zer esanik ez bertako fraideak. Baina iraganeko kultura eta eliza baten irudi bezala begiratzen diot neurri batean.

> *"Blazquezen teologia kontserbadorea da, baina gizon ona eta apala da, oso neurtua, elkarrizketa gizona"*

**Parisera joan zinen ikastera. Tesia egiten zenbiltzala zein aldaketa gertatu zen zure barruan? Zerk egin zuen ordura artekoak zalantzan jartzea edo ideia berriak sortzea?**

*Kristautasuna eta beste erlijioak* gaia jorratu nuen tesian, Hans Urs von Balthasar oinarri harturik. "Kristautasuna da egiazko erlijio bakarra", zioen hark, Jainkoaren errebelazio betea jaso duen bakarra. Beste erlijio guztien gainetik dago, guztien erroreak zuzenduta eta egia partzial guztiak erabat osatuta. Nik ere hala ikusten nuen hasieran, eta hori da oraindik ere elizaren ikuspegi ofiziala. Baina gaia landu ahala, ikusi nuen bide horretatik ez zegoela irtenbiderik, eta ikuspegi pluralistara aldatu nintzen: inor ez da egia osoaren jabe; apaltasunean, elkarrizketan, artekotasunean dago egia.

**Teologia irakastea galarazi zizuten. Zein eragin izan du horrek zure bizitzan?**

Teologiaren irakaskuntzarekin batera, fraidetza eta apaizgoa utzi behar izan nituen. Baina Deustuko Unibertsitatean bertan jarraitu ahal izan nuen, Gizarte eta Giza Zientzien Fakultatean, eta oso eskertua nago. Erlijioaren filosofia eta historia ematen ditut orain. Eta fedeari buruzko gogoeta egiten eta zabaltzen jarraitzen dut, hitzez nahiz idatziz.

**Gotzainek aita santuaren esana "exekutatzen" dutela azaldu duzu. Gaur egun zelan jokatzen du elizaren hierarkiak?**

Aita santuak izendatzen ditu gotzainak eta kardinalak, eta kardinalek izendatzen dute aita santua. Erdi Aroko sistema klerikal eta autoritarioa da oraindik eliza erakundea. Ezagutzaren eta informazio globalizatuaren kultura honetan ez du zentzurik horrek. Eta Jesusen ikuspegiarekin kontraesanean dago. "Ez deitu inori aita edo jauna. Zuek denok neba-arrebak zarete", esan zuen Jesusek.

**Elizaren barruan zein aldaketa ikusi gurako zenuke?**

Jesusen irakaspen eta jokabide askatzaileari jarraitu beharko lioke elizak, gaur ulergarriak diren hizkera eta moldeak baliatuta. Ezinbestekoa da erabateko demokrazia, desklerikalizazioa, eta hortik berez etorriko litzateke emakumearen berdintasuna. Eta pluralismoaren onarpena.

**Rouco Varela Ricardo Blazquezek ordezkatu du. Aldaketa horrek zer eragin izan dezake?**

Roucoren estiloa zakarra eta autoritarioa izan da, eta bere gai obsesiboetan setatu da: familia tradizionala, sexualitatea, abortua eta Espainiaren batasuna. Blazquezen teologia ere kontserbadorea da, baina gizon ona eta apala da, oso neurtua, elkarrizketa gizona. Bakea eta oreka pixka bat ekarriko ditu.

**Aita santuak urtebete darama bere karguan. Gauzak aldatzen hasi direla deritzozu elizaren barruan?**

Aita santuaren teologia eta elizaren eredua tradizionalak dira, baina, bere ustez, funtsezkoena ez da ortodoxia. Errukiaren lehentasuna aldarrikatu du, eta esan du eliza gizakien oinazeak arintzeko dagoela, ez dogmak irakasteko, ez beste ezertarako. Aldaketa handia da hori. Aldaketa hori teologiaren berrikuntza sakonean eta elizaren demokratizazioan gauzatuko ote den ikusteko dago.

**Euskal Herriko bakegintzan zein pauso eman beharko lirateke? Elkarbizitzaz eta barkamena eskatzeaz hitz egiten da. Garaileak eta garaituak. Zein iritzi duzu zuk gai horri buruz?**

Hobe dira eztabaida horiek hiletak baino. Inork uste ez zituen aurrerapausoak eman dira urte hauetan, zorionez. "Garaileak eta garaituak", ordea, gerrako hizkera da. Eta ulergaitza baino gehiago onartezina iruditzen zait Espainiako Gobernuaren jarrera itxia. Horren aurrean, noski, ETAk alde bakarreko pausoak ematen jarraitu behar du. Barkamena eskatzea ongi dago, denen aldetik, baina ezin da exijitu, eta ezin da hori ezertarako baldintza gisa jarri.

**Presoen arloan, kartzela politikaren inguruan zer iritzi duzu?**

Kartzelak ez du zentzurik mendeku eta zigor gisa, eta hala ulertzen da oraindik, oro har. Inork ez luke kartzelan egon behar, berriro ez duela indarkeriara joko jakinda gero.

**Elorrioko berbaldian zein gai hartuko duzu hizpide? Zeri buruz hitz egingo duzu bertaratzen direnen aurrean?**

*Zergatik eta zelan jarraitu Jesusi?* gaia jarri didate. Azaltzen saiatuko naiz zein on eta ongarri izan daitekeen gaur Jesusen bidea bizitzea: askatasuna, esperantza, senidetasuna eta errukia.

Kultura

# Mikel Laboaren sorkuntza, umoretik eta maitasunez: 'Zazpi aldiz elur'


Taula gainetik dihardüen artista boskotea

> ITSASO ESTEBAN

Martxoaren 23an, 19:00etan, Durangoko San Agustin kulturgunean, eta 28an, 21:00etan, Zornontza Aretoan, eskainiko du Tanttaka talde donostiarrak *Zazpi aldiz elur* lana. Mikel Laboa musikari donostiarrari buruzko ikuskizuna da. Margoekin, zuzeneko musikagaz eta antzerkiagaz, baina, batez ere, lagunen maitasunagaz eta umoretik egindakoa.

Bernardo Atxagak idatzi du ikuskizunaren gidoia, eta emanaldian Iñaki Salvador eta Angel Unzu musikariek, Maria Berasarte abeslariak, eta Mireia Gabilondo eta Iñaki Rikarte aktoreek dihardute.

Mireia Gabilondo da zuzendaria, eta haren berbetan, oso harrera beroa egin diete ikusleek: "Oso lan hunkigarria dela, eta berriro ikusiko luketela esan digute askok". Izan ere, Mikel Laboari buruzko "gauza txiki intimoez" dihardute haren lagun sortzaileek obra honetan. Umoreak Laboaren bizitzan eta sorkuntzan eduki zuen eraginaz, esaterako.


Ikuskizuneko musikaren sortzailea: Iñaki Salvador.

## Laboaren kantak, modu "pertsonal eta librean"

Mikel Laboagaz 25 urtez aritu zen Iñaki Salvador pianistak sortu du, eta jotzen du, obrako musika

"Kantuak eszenaren beharretara moldatzea izan da asmoa, eta ez aldrebes. Hau da, ez ditugu Mikelen kantuak modu nostalgikoan jo nahi izan", dio obraren musika sortu duen Iñaki Salvador (Donostia, 1962) pianistak. "Hain aberatsa den Laboaren unibertsoa eskaini gura diogu jendeari, dakigun modurik iradokitzaileenean; haren sorkuntzan ibilbide bat proposatu". *Zazpi aldiz elur* Laboarenganako "hurbilpen intimoa" da, Salvadorren berbetan: "Laboaren proposamen artistikoa poliedrikoa zen, eta bere izaera eta gizatasuna oso berezia; beste diziplina artistiko batzuekin harreman estua zuen, hain desberdinak diruditen Camarón de la Isla, John Cage edo Cantinflas miresten zituen. Guzti horrek egiten du Laboa, eta bere obra antzerkiaren hizkuntzarekin modu oso naturalean jorratu ahal izatea".

Mikel Laboak 25 urtean eskainiriko kontzertu eta grabaketa guztietan parte hartu zuen Iñaki Salvadorrek. Ikuskizun honetan lagunaren kantuak "modu pertsonal eta librean" interpretatzen ditu: "Mikelek beti defendatu zuen diskurtso pertsonala eta askea. Oso artista librea zen, eta askatasun hori bera aldarrikatzen zuen bere kantak euren erara jo nahi zituztenentzat ere".

## *"Lantaldea aukeratu nuenean, banekien elkar ulertuko genuela"*

Lagunarteko boskotea osatu, eta Mikel Laboari buruzko musika, antzerkia, eta margoa nahasten dituen ikuskizuna sortu dute Gabilondok eta kideek

**Duela hilabete eskas aurkeztu zenuten lana, eta emanaldi asko egin dituzue dagoeneko.**
Bai, estreinatu orduko hitzartu genuen aurkezpen bira; ikuskizunaren aurreproiektua aurkeztu genuen, eta hogeitik gora emanaldi lotu genituen. Hori ez da oso normala, askotan gertatzen da ikuskizun berria estreinatu, eta, ondoren, lau hilabete ematea beste emanaldirik barik. Eta oso tristea izaten da. Alde horretatik oso pozik gaude.

**Zergatik eduki du jendeak horrelako interesa ikuskizunean?**
Mikel Laboagatik. Askok eta askok pila bat maite genuelako egiten zuena, eta bere izaera ere bai. Bestalde, Bernardo Atxagak egin du gidoia, Zumetaren irudia daukagu, agertokian Iñaki Salvador, Angel Unzu eta Maria Berasarte musikariak, eta bi aktore gaude. Horren guztiaren batura dela esango nuke.

**Dena uztartzea izan da zure lana. Zelakoa izan da talde lana?**
Erraza izan da. Lan guztiek dute euren prozesua, eta denbora asko pasatu dut honetan ere, nola egin pentsatzen. Ikuskizun bakoitzak bere bidea dauka, baina lantaldea aukeratu nuenean banekien elkar ulertuko genuela, aurretik batera lan egindakoak garelako. Dena errazten du horrek. Iñaki Salvadorrekin, esaterako, askotan egin dut lan, oso ondo ezagutzen dugu elkar. Lagunartean gura genuen Mikeli buruz berba egin eta ikuskizuna sortu.

**Mikel Laboaren lanaren inguruan ikuskizuna sortzeko ideia zelan sortu zitzaizun?**
Beti esaten dut Mikel Laboaren ahotsak, bere kantuek eta bere egiteko moduak asko lagundu nautela bizitzan. Antzezten eta ikuskizunak zuzentzen hasi nintzenean, esaterako, Mikelen kantu bat behintzat sartzen nuen ikuskizun guztietan. Beti lagundu dit sorkuntza prozesuan. Gero, Kukai dantza taldearekin egin genuen *Komunikazioa-Inkomunikazioa* lanerako buru-belarri sartu nintzen Mikelen unibertsoan. Horrela sortu zen Mikeli buruz ikuskizun bat egiteko ideia, eta ikuskizun honetan pentsatzen hasi ginen. Hainbeste gauza daude hitz egiteko, eta hainbeste kantu! Zailena aukeraketa egitea izaten da sarri.


Zuzendaria: Mireia Gabilondo

**Zer aukeratu duzue?**
Mikel hil zen egunagaz hasten da ikuskizuna, eta Mikeli buruzko hain ezagunak ez diren gauzak kontatzen ditugu ikuskizunean: psikiatra zela, umeekin lan egiten zuela, horrek zer eragin zeukan bere kantuetan, eta hainbat hizkuntzatan –sarri hizkuntza ezezagunetan– kantatzea gustatzen zitzaiola, adibidez. Horrelako gauzak kontatu nahi nituen. Gainera, keinu bat egiten diogu hain gogoko zuen zinema komikoari: Chaplini eta Keatoni, esaterako.

> MUSIKA

# Mikel Markez 'Indar bat dabil hor' diskoagaz, Berrizera

Bihar, 20:00etan hasita, Berrizko Kultur Etxean ariko da Mikel Markez musikari errenteriarra, bere azken laneko kantak zuzenean eskaintzen


Zuzenekoetan hiru musikarik laguntzen diote Mikel Markezen ahotsari eta gitarrari.

> ITSASO ESTEBAN

Bakarka kaleratu duen hamargarren diskorako sorturiko kantak aurkeztera dator Mikel Markez (Errenteria, 1971) musikaria Berrizko Kultur Etxera. Bihar, 20:00etan, izango da emanaldia. Iazko urritik dago *Indar bat dabil hor* izenburuko diskoa kalean, eta, besteak beste, Xabier Amuriza bertsolariaren, Josu Zabala eta Arkaitz Miner musikarien eta Aire Ahizpen kolaborazioagaz jardun du lan horren grabazioan.

Zuzenekoetan hiru musikarik laguntzen diote Markezen gitarraren soinuari eta ahotsari: Arkaitz Minerrek jotzen ditu biolina, mandolina eta gitarra; Amaiur Cajaravillek kontrabaxua; eta Satxa Soriazuk pianoa eta teklatua. Berrizen, Arkaitz Minerrekin ariko da Markez.

1991. urtean argitaratu zuen Mikel Markezek *Eta etorri egin zait* bere lehenengo diskoa, eta ordutik hona, besteak beste, Mikel Laboa, Benito Lertxundi, Paco Ibañez edo Silvio Rodríguez musikariekin kantatu du.

> LITERATURA

# Haur liburuaren eguna Iurretako bibliotekan

Ainhoa Larrinagak gidaturiko ilustrazio tailerrean parte hartu dute Maiztegiko ikasleek, aste honetan

> I.E.

Apirilaren 2ko Haur Liburuaren Nazioarteko Egunaren bueltan, hainbat ekimen ipini ditu martxan Iurretako Herri Bibliotekak. Aste honetan, esaterako, Ainhoa Larrinagak gidaturiko ilustrazio tailerrean parte hartu dute Maiztegi Herri Eskolako Lehen Hezkuntzako ikasleek.

Hans Christian Andersen idazle daniarraren *Berunezko soldadutxoa* ipuinaren formatu handiko edizio bat osatu dute umeek, Larrinagagaz.

Apirilaren 4an, 18:00etan, Herri Bibliotekako ekitaldian aurkeztuko dute ilustrazio tailer horretan egindako lana, eta egun horretan eskainiko dute ipuinaren dramatizazioa ere.

Munduko beste hainbat liburutegitan bezala, Haur Liburuaren Nazioarteko Eguneko mezuaren irakurketa egingo dute, apirilaren 4an, Iurretako Herri Bibliotekan. Ipuin kontalari saioa ere izango da egun horretan. Oihana Etxegibel kontalariak saio bikoitza eskainiko du: 3 eta 4 urte artekoei zuzenduta 17:30ean; eta 5 urtetik gorakoei eskainita 18:00etan.

Munduko beste hainbat liburutegitan bezala, Haur liburuaren eguneko mezua irakurriko dute

> EMANALDIA

# Organo eta abeslari bikotea San Frantziskon, Arandoñoren eskutik

Durangoko Arandoño kultur elkarteak antolatu du emanaldia, Organo Kontzertuak zikloaren barruan

> I.E.

Bihar, martxoaren 22an, Durangoko San Frantzisko monasterioan eskainiko dute, 20:00etan hasita, emanaldia. Donostiako musikari biren organoa eta ahotsa izango dira emanaldi horretako protagonistak: Gerardo Rifón ariko da organoan, eta Xabier Anduaga tenor gaztea kantuan. Bestek beste, Donostiako Orfeoiagaz kolaboratzen du Gerardo Rifón organistak, eta 1980. urtetik Donostiako San Ignazio elizako organo-jotzailea da. Anduagak, berriz, Donostiako Orfeoi Txikian hasi zuen kantari ibilbidea, eta Orfeoiko kide da gaur egun ere.

Hamar obra interpretatuko dituzte Gerardo Rifón eta Xabier Anduaga donostiarrek elkarrekin: Cacciniren *Ave Maria*, Haendelen *Ombra mai fu*, Bachen 140. kantatako lau obra, Rossiniren *Domine Deus*, Faureren *En prière*, Mendelsshonen *So ihr mich* eta Mascagniren *Sancta Maria*.

Hamar lan interpretatuko dituzte Gerardo Rifón eta Xabier Anduaga donostiarrek elkarrekin

## GEURE DURANGALDEA

**JOSUNE ARANGUREN**
Programatzailea



### K handiaz eta k txikiaz

Kultura mota biz aritu gaitezen. Bata K handiz idazten da –Euskalduna, klasikoa, Alondegiko Guerrilla Girls-en erakusketa abangoardista, Arco…– eta, bestea, k txikiz –herriko antzokia edo abesbatza, edo titia ematea… Alondegian–. Zein da ona? Zein txarra? Topikoek funtzionatzen dute: leku dotorea, atzerriko orkestra handia, egile izendun baten opera… Nor ausartu aspertu dela esatera? Aktore ospetsuen abangoardiako emanaldi baten ostean… Edo garesti ordaindutakoan.

Kultur gertakariek giza garapenerako bidea ematen dute, eta baita gizartearen kohesiorako ere. Sortzaile eta jasotzailearen artekotik irteten da hausnarketa. Harremanen alaba nagusia da ikaskuntza. Herri baten kultura herritarrek partekatzen dutena da.

Horregatik kultura ez dago aurreko adibideetan soilik. Kultura ez dira ikuskizunak, artea edo jaiak. Harremanetarako erak, sineskeriek, ohiturek, errituelek, janzkerak eta hizkuntzak ere gure kultur ondarea osatzen dute. Eta aisialdirako azturek ere bai. Bati irakurri diot hanburgesategi berriena beste aukera bat dela, eta bertaratzea, hautua. Kultura kontsumoari lotzen zaio, eta batzuetan kanpotik etorritako aisialdi ereduak miresmenezko K handiz idazten ditugu.

Herrigintza horrelako erabaki "txikietan" dago: hanburgesak saltzeko baimena ematean, kultur etxe barik mega-espazioak eraikitzean, etab. Gure egunerokotasuna honelako erabaki txikiek eraikitzen dute, ondorio guztietarako.

*http://josunearanguren.blogspot.com.es/*












Boboliren udaberriko bilduma barria ezagutu egizu

Astarloa 15 - Durango
Tel. 94 623 26 32
0 hiletik 16. tailararte




www.boboli.es

# moda udaberria

**Udaberria ate-joka dugu. Neguko arropa lodiak gorde, eta koloreari ateak irekitzeko ordua heldu da. Umeen jantzietan ere nabarituko da denboraldi aldaketa. Arropa eroso eta koloretsuek txikitxoenen armairuak beteko dituzte datozen hilabeteetan.**

## UMEAK










## 1. *Looka*

Soineko eroso bat edozein egunetan kalera dotore irteteko aukera aproposa da. Ez ahaztu jertsea!












## UMEAK





ZIRIMOLA


ZIRIMOLA

**Umeek arropa erosoa jantzi gura izaten dute. Eta erosotasun horri dotorezia gehituz gero, uztardura egokia aurkituko dugu.**

2. *Looka*

Marradun poloekin gure txikiak dotore jantzita joango dira edozein urtarotan! Udan ez ahaztu txapela janztea.










PINKII


PINKII



**Neguko arropekin aspertuta bazaude, hona hemen denboraldi berrirako egin nahi dizkizugun proposamen koloretsu eta eramangarriak. Udaberria heldu da! Armairua goitik behera aldatzeko ordua iritsi da. Tirantedun kamisetak eta soinekoak eramateko gutxi falta da.**

# *moda udaberria*

## EMAKUMEA



























## EMAKUMEA






# 1. Looka

Marinel estiloko kamisetarekin ez duzu sekula hutsik egingo. Horri ondo doazkion osagarriekin 'look' perfektua aurkituko duzu.






**Udaberriko eta udako denboraldian arropa koloretsuak kolore neutroekin uztartzen asmatzea izango da gakoa. Horri modako oinetakoak gehitzen badizkiozu, prest egongo zara!**


MAIDA


MAIDA



## EMAKUMEA







EL ARMARIO DE LOLA


EL ARMARIO DE LOLA


EL ARMARIO DE LOLA

**Jar iezaiezu kolorea zure osagarriei ere. Poltsa koloretsuek janzkera osatzen lagunduko dizute**





## 2. *Looka*

Osagarriek jantziei beste ukitu bat ematen diete. Paparreko orratz original batekin 'look'-a erabat alda dezakezu!













## EMAKUMEA


ZUZEU


ZUZEU


ZUZEU




# 3. *Looka*

Zure armairuan txaketa bakerorik ez baduzu, oraintxe da eskuratzeko unea. Edozein arroparekin eramango duzu.




BOUTIQUE LUISA


BOUTIQUE LUISA



## OSAGARRIAK


SMART

# 1. *Osagarriak*

Poltsa erraldoiak eroateko sasoia da. Denetarik kabitzen da barruan, behar dituzun gauza guztiak bertan sartu, eta aurrera egiteko.











# 2. *Osagarriak*

Belarritakoak, eskumuturrekoak, lepokoak, eraztunak eta ordulariak berriztu itzazu. Estilo eta mota guztietakoak ondo etorriko zaizkizu.

Uda hurreratzen doan heinean, oinetakoak aldatzen doaz. Sandaliak zein botak, guztiak dira aukera ona.


MAIDA


MAIDA








SMART






ERROTARITXUENA
DURANGO
Inauguratu berria
Estreinatu zure etxebizitza Durangoko auzo berrian, itxaron gabe gainera.
Ongi etorri!
URBANIZAZIOA AMAITUTA
Nahi duzun etxebizitza
Nahi duzun etxebizitza daukagu, distribuzio ezberdinekin, gaur egungo akaberak eta terraza zabalak, barrutik eta kanpotik goza dezazun.
Kontsulta iezaguzu eta gure aukeren inguruan informatuko dizugu.
prezioak
2 log. 204.000 €+BEZa
3 log. 268.000 €+BEZa
-tik aurrera
Amaitutako zure etxebizitza eros ezazu arriskurik gabe.
Finantzaketa erosketaren %100 arte.
Gastuak eta zergak ez barne.
www.solvia.es
SabadellGuipuzcoano
946 46 20 41
www.sukia.com
sukia
Zure etxean zaude.
Estás en tu casa.

> MUSIKA

# Martxoan eta apirilean kontzertu zikloa izango da Bartolome Ertzillan

Durangoko musika eskolan dira bost kontzertuak

Eguaztenean eskaini zuten kontzertu zikloko lehenengo emanaldia, eta beste lau hitzordu ere lotu dituzte, martxorako eta apirilerako, Durangoko Bartolome Ertzilla Musika Eskolan. Martxoaren 26an izango da bigarren emanaldia, 17:30ean. Pianoko hirugarren mailako ikasleek pelikuletako soinu banden emanaldia eskaniko dute.

Bestalde, ahots eta piano kontzertua eskainiko dute Bidane Txopitea, Edurne Egia, Jasone Turunbay eta Iratxe Uribelarrea kantu ikasleek, apirilaren 2an, Kurutzesantu Museoan.

Hiruhileko guztien amaieran egin ohi dutenez, ikasturte osoan prestaturiko obrak eskainiko dituzte, erdi mailako graduko ikasleek, apirilaren 3an. Zikloa amaitzeko, apirilaren 11n, *¿Antigua música de cámara duranguesa?* kontzertu-hitzaldia eskainiko du Khantoria musika taldeak, Durangoko goi mailako hiru ikasleren laguntzagaz.

> ARGAZKILARITZA

## David Jiménez argazkilariagaz tailerra, Elorrion

*Irudi baten bihotza* izenburuko tailerra gidatuko du David Jiménez argazkilari andaluziarrak (Sevilla, 1970), maiatzean, Elorrion. Elorrioko Argazki Taldeak antolatu du ekimena, eta argazki munduan lanak garatzeko nahia duen edozeinek har dezake tailerrean parte.

"Gure ikuspuntua mundua eraikitzeko gai dela" ohartarazi gura ditu Jimenezek parte hartzaileak, eta "planteamendu poetiko eta kontzeptualak zelan bideratu" aztertzera gonbidatuko ditu argazkizaleak.

Hiru zatiko ikastaroa izango da Elorriokoa. Batetik, barne irudiek munduaren ulermenarekin duten erlazioa aztertuko dute. Bestetik, ideia bat zelan gauzatu ere landuko dute, arrazoia eta intuizioa zelan orekatu azalduko die Jimenezek parte hartzaileei. Amaitzeko, argazkigintzan ikuspuntuak, espazioak eta argiak daukaten garrantziaz ere jardungo dira.

Maiatzaren 10ean eta 11n, 09:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara izango dira saioak. Izen-ematea eta informazio guztia: *elorriophoto@gmail.com* helbidean.

> DANTZA

# Break On Stage jaialdiaren inguruan, kale kulturak ezagutzeko gonbita

*Breakdance* ikastaroa egin dute Zornotzan, Bilboko jaialdi horren bueltan




Besteak beste, Frantziako Inesteam taldea ariko da martxoaren 29an, Bilbao Arenako jaialdian.

> ITSASO ESTEBAN

Bilbon, asteon, Break On Stage jaialdia aurkeztu dute: hiriburuan bertan, martxoaren 29an, 19:00etan hasita izango da hitzordua. Kale kulturen erakusleiho izango da jaialdia 14. edizio honetan ere. Elorrion sortu zuten ekimena, eta azken urteetan Bizkaiko hiriburura lekualdatu duten arren, Arriola antzokia eta Logela Multimedia talde elorriarra dira antolatzaileak. Hain zuzen, Logela Multimediako Imanol Garaizabal da ekimenaren zuzendaria, eta, dioenez, kale kulturen munduko talderik onenak izango dira Bilbon: Herbeheretako The Ruggends, Frantziako Inesteam edo Espainiako RST Crew, esaterako.

Miren Josune Ariztondo Bizkaiko Aldundiko Kultura diputatuak, Ibone Bengoetxea Bilboko Udaleko Kultura eta Hezkuntza zinegotziak eta Imanol Garaizabalek aurkeztu dituzte jaialdiaren nobedadeak.

> Kale kulturen hainbat diziplinatako bi eta lau minutu arteko erakustaldi laburrak egingo dituzte

Aurreratu dutenez, kale kulturen hainbat diziplinatako bi eta lau minutu arteko erakustaldi laburrak egingo dituzte artistek: dantzak eta bizikleta gaineko akrobaziak, adibidez. Musikari dagokionez, *Vocaliks* ikuskizunak eta Rayden hip hop taldearen kontzertuak ere izango dute jaialdian lekurik.

### Eskolak Zornotzan

Martxoaren 29ko jaialdiaren testuinguruan, *breakdance* ikastaroak antolatu dituzte Bizkaiko hainbat eskualdetan. Zornotzako Zelaieta zentroan egin dute saio horietako bat. Crazy Hospital eta Deabru Beltzak taldeetako kide den *Malaka* dantzari bilbotarraren eskutik jaso zituzten gazteek Zornotzako saio horretan, atzo, *breakdance* dantza estiloaren inguruko oinarrizko jakingarriak, eta praktikan ipini zituzten, gainera.

> BERTSOLARITZA

# Lea-Artibako taldeak irabazi dio Durangaldeko seikoteari

Lea-Artibaiko seikoteak 405 puntu batu zituen, eta 388 Durangaldeko taldeak; martxoaren 28an, Bilboko Kafe Antzokiko finalean ariko dira Lea-Artibaikoak

> I.E.

Giro ederrean, Durangoko Fray Juan de Zumarraga institutuko entzuleen aurrean jardun ziren, eguaztenean, Bizkaiko Bertsolari Gazteen BBK Sariketan, Durangaldeko eta Lea-Artibaiko bertsolariak. Sariketa horren lehenengo finalaurrekoa izan zen Durangokoa, eta Lea-Artibaiko seikoteak irabazi zuen kanporaketa, guztira 405 puntu batuta. Durangaldeko taldeak, aldiz, 388 puntu batu zituen, Durangoko saio horretan.




Eguaztenean, Durangoko institutuan jokatu zuten Bizkaiko Bertsolari Gazteen BBK Sariketaren finalaurrekoa.

Hemezortzi urte artekoen Durangaldeko taldean Iruri Altzerreka, Peio Azkarate eta Txaber Altube jardun ziren. Talde horrek 16 puntuko aldea atera zion Lea-Artibaiko Aitor Ruizek, Graxi Arregik eta Naroa Loiolak osaturiko hirukoteari. Baina 19 eta 24 urte artekoan 32 puntuko aldeagaz irabazi zuen Lea-Artibaik. Ander Aldazabalek, Ander Gerrikaetxeberriak eta Aitor Bizkarrak kantatu zuten Durangaldeko taldean, eta Aissa Intxaustik, Eneko Arratek eta Nerea Ibarzabalek Lea-Artibaikoan.

### Bilboko finalera

Eguazteneko Durangoko saioa irabazita, beraz, Lea-Artibai izango da martxoaren 28ko Bilboko Kafe Antzokiko finalean ariko den taldeetako bat. Datorren martitzenean, martxoaren 25ean jokatuko duten bigarren finalaurrekoko irabazlea, Arratia edo Busturialdea, lehiatuko da Lea-Artibaigaz finalean. Finaletik kanpo geratu da azken urteetan sariketa irabazi izan duen Durangaldea.

> MUSIKA

## Doctor Deseo taldeari buruzko dokumentala eskainiko dute

Durangoko Plateruenean aurkeztuko du Bideografik Durangoko ekoiztetxeak Bilboko Doctor Deseo taldeari buruz plazaratu duen *Busco en tus labios* dokumentala. Doctor Deseoren izen bereko diskoaren aurkezpenean eman zuten dokumentala lehenengoz, eta eskuragai dago harrezkero, baina doako sarreragaz eskainiko dute domekan, 20:00etan, Plateruenean.

Ia ordubeteko iraupeneko lana da *Busco en tus labios* dokumental musikala, eta, Francis Díez Doctor Deseo taldeko abeslariaren, Kaki Arkarazo, Nando de la Casa eta Zea Mays taldeko Aiora Renteria musikarien, eta Edorta Jimenez, Kirmen Uribe eta Itziar Ziga idazleen parte hartzeagaz osatu dute, besteak beste. Lagun horiek guztiek Doctor Deseori loturiko bizipenak konpartitzen dituzte dokumentalean.

# Kirola

**Paul Usabel** | Atxondo, 1991. Baqué-Campos taldeko txirrindularia |

## “Euskaldun Torneoko lider ipintzea izango da aurtengo helburua”

Euskaldun Torneoko sailkapenean bigarren dago Usabel; horretaz gainera, joan zen domekan Astilleroko proba irabazi zuen




Baqué-Campos taldeko txirrindularia da Paul Usabel atxondarra.

> MARKEL ONAINDIA

**Pilotan eta futbolean hasi zen umetan, baina 11 urtegaz lesio bat eduki zuen, eta bizikletan ibiltzea gomendatu zioten errehabilitazio lez. Txirrindularitza bizitzeko modu bat da geroztik Paul Usabelentzat. Afizionatu mailako ziklista onenetako bat da; joan zen domekan Astilleron (Kantabria, Espainia) lortu zuen lehenengo garaipena. Horretaz gainera, hezitzaile ikasketak garatzen dabil, eta Baqué-Campos taldean ere sen hori erakusten du gazteagoekin.**

> *“Ez daukagu eskaerarik, eta hori garrantzitsua da; gugan konfiantza daukate”*

**Zelan lortu zenuen Astilleroko garaipena?**
Talde guztia joan ginen, eta eraso guztietara irten behar zen. Aktibo egon ginen, eta ni hasieratik egon nintzen ihesaldietan. Bakarrik ere joan nintzen pare bat bider, baina ez zidaten uzten ihes egiten. 70 kilometroren faltan ihesaldia osatu zen; Baqueko bost sartu ginen, eta aparteko bi ere bai. Denok erreleboetan eta ganoraz joan ginen hasieran, baina 50 kilometro falta zirenean besteak ez ziren pasatzen. Barrientosek eta biok erasoa jo genuen, eta erreleboka joan ginen. Azkenean minutu bikoagaz sartu ginen.

**Eskutik helduta sartu zineten helmugan, baina zu aurretik.**
Berak Lizartzan irabazi zuen, eta Astilleron ni hasieratik ibili nintzen ihesean. Horregatik, berba egin genuen ni aurretik sartzeko.

**Zapatuan ere emaitza ona lortu zenuen, Urretxun.**
Euskaldun Torneoko lider ipintzeko esperantza neukan. Zortzigarren egin nuen, eta sailkapenean bigarren ipini nintzen, puntu batera. Ondo ibili ginen, baina gutxi joan ginen lasterketara. Azken unean bakarrik geratu nintzen, eta ezin izan nuen eraso guztietara irten. Bost kilometroren faltan seik egin zuten ihes, eta, atzetik, bigarren sailkatu nintzen esprintean.

**Hurrengoan lider?**
Apur bat urrun geratzen da hurrengo proba, Lazkaokoa, hemendik lau astera. Bitartean entrenatzen jarraituko dut. Lehenengo Balenciaga lasterketan zentratuko naiz, garrantzitsua da-eta. Horrelako garaipen batek motibazioa ematen dizu entrenatzen eta gauzak ondo egiten jarraitzeko. Euskaldun Torneoan lider ipintzea izango da aurtengo helburua. Denboraldia lidergoan amaitzea gaitza izango da, baina lasterketa polit batzuk eginda, behintzat, ea hor egoten garen.

**Taldean gazteei erakustea ere baduzu helburu, ezta?**
Baquén eskatu zidaten elite lez urtebete gehiago egiteko, apur bat gazteei erakusteko esperantzagaz: lasterketetan zelan jokatu behar den, zelan entrenatu… Balio batzuk transmitituko dizkiet. Taldea familia txiki bat da, denok moldatzen gara oso ondo. Gauzak azaldu behar zaizkie apur-apurka ikasten joateko.

**Zer asmo daukazue taldeagaz?**
Ez daukagu eskaerarik, eta hori garrantzitsua da; gugan konfiantza dute. Iaz lasterketa garrantzitsu mordo bat irabazi genuen, denboraldi oso polita egin genuen. Beharbada, horra ez gara helduko, baina gure helburua gauza politak egiten jarraitzea da. Ea Baquéri eta Camposi ere poza ematen diegun, garrantzitsua da-eta momentu honetan.

**Zelan ikusten duzu taldea?**
Taldea oso indartsu dago. Elitean bi bakarrik gaude, baina 23 urtez azpikoetan jende oso ona dago. Angulo eta Jimenez, adibidez. Gazteak ere indartsu datoz. Ziklismoa dagoen moduan dago, eta jende gaztea igotzen dabiltza [profesionaletara]. Ez da hori gure helburua; benetan erritmo onagaz eta gogortuta daudenean igotzea baizik. Oso gaitza da profesionaletara pasatzea.

**Egoera aldatzen dabil, beraz?**
Elitekoentzat gero eta lasterketa gutxiago dago. Gero eta gazteagoetara mugatu nahi dute, eta, nire ustez, akats bat da; ziklista onak irteten direnak, askotan, adinekoak izaten dira. [Amets] Txurrukak, adibidez, bost edo sei urte egin zituen afizionatuetan, eta gero begiratu zelako txirrindularia irten den. Ez dut uste filosofia eraginkorra denik.

**Txirrindulari azkarra zara. Esprinterra?**
Nire burua ez dut esprintertzat jotzen. Bizkorra naiz, baina portuak-eta daudenean. Talde batean ailegatzen banaiz, ondo moldatzen naiz. Esprint masibo batean, ni baino jende bizkorragoa dago. Pista egin dudalako dakit pelotoian mugitzen; esplosiboa naiz, baina ez daukat iraunkortasunik.

**Pistan ondo ibili zara, gainera.**
Txirrindularitzan dauzkadan emaitza guztiak pistan izan dira. Kadeteetan, bigarren urtean, Euskadiko Txapelketa irabazi nuen, eta gazte mailako lehen bi urteetan ere bai. Gazte mailako bigarren urtean Espainiako bigarren egin nuen taldeka, eta Munduko Txapelketa ere lastertu nuen, Errusian. Afizionatuetara pasatu nintzenean, beste salto bat izan zen, eta golpe txiki bat hartu nuen. Gehiago entrenatu behar da, ondo ez zabiltzala ikustean desmotibatu egiten zara… Bizikleta ez da 2+2 = 4.

**Aurrera begira, zer esperantza?**
Esperantza da azkenengo galtzen dena. Gauzak ahalik eta hoberen egin gura ditut, bizikleta uzterakoan ez esateko “egin banu”. Ez dut harragaz geratu gura. Aukera edukitzen badut, talde kontinental batean jarraitu gura dut; baina, bestela, bizikletaren munduan jarraitu nahi dut, konpromiso hori barik.

> DUATLOIA

# Autzaganeren ordez, Muniketa igoko dute birritan Zornotzako duatloian, etzi

Domekan Zornotzako duatloia lehiatuko dute; Autzaganen tunela egiteko obretan dabiltzanez, bizikletako tartea egokitu egin behar izan dute, eta Muniketatik birritan igaroko dira, aurten, parte-hartzaileak



Zornotzako duatloian 250 bat parte-hartzaile batzea itxaroten dute. Extrem Zornotza.

**>JOSEBA DERTEANO**

Domekan Zornotzako V. Duatloia antolatuko du Extrem Zornotza txirrindulari klubak. Ibilbideak aldaketa nagusi bat izango du aurreko aldiekin konparatuta; Autzaganen obretan dabiltzanez, bizikletako tartea moldatu egin behar izan dute. Aurten, beraz, Muniketa mendatea igoko dute duatloilariek.

Guztira 200 eta 250 parte-hartzaile artean batzea itxaroten dute. Irteera puntua San Miguel kalean egongo da, eta helmuga Zelaieta parkean. Emakumeen lasterketa 10:30ean hasiko dute, eta gizonena ordulaurden bat geroago. Duatloiaren neurriak honako hauek dira: 10 kilometro korrika, 44 bizikletan eta beste 5 korrika. Korrikako lehen tartea herrigunearen (San Pedro kalea eta San Miguel kalea, adibidez) eta Jauregibarriako landaren artean banatu dituzte. Gune bietatik zehar osatu dute zirkuitua. Parte-hartzaileei helmugara arteko bidea erakutsiko dien korrikako azken tartea, aldiz, herrigunean bakarrik ibiliko da, bertaratzen diren zaleen gozagarri.

Korrikako tarte bien artean, bizikletako 44 kilometroei aurre egin beharko diete duatloilariek. Autzaganeko lanen ondorioz, ibilbidea moldatu egin dute. Durangorantz irtengo dira parte-hartzaileak, eta Arriandin Dudoletarako bidea hartuko dute. Birritan igaroko dira Dudoletatik. Ondorioz, "aurten bizikletako tartea gogorragoa da", abisatu du Miguel Rodriguez Extrem Zornotzako kideak.

Parte-hartzaileei dagokienez, aurtengo hutsune handienetako bi Iurgi eta Etor Etxandia anaiak dira, biak zornotzarrak. Iaz Iurgik duatloia irabazi zuen, eta Etor bigarren sailkatu zen. Biak lesionatuta daude.

Udalaren diru-laguntzari eskerrak, duatloiak ez du murrizketarik izan, eta ohiko sariez gainera, beste hainbat ere zozketatuko dituzte. Esaterako, parte-hartzaileei euro biko txartel bat emango diete Luis Urrengoetxea kaleko tabernetan erabiltzeko.




> KORRIKA

## Kataluniako ultra traila irabazi du Triguerosek

Silvia Trigueros izan da onena Les Fonts lasterketan

Joan zen barikutik domekara, hiru etapatan banatuta, Kataluniako Les Fonts ultra traila lehiatu eta irabazi zuen Silvia Triguerosek (Barakaldo –Abadiñon bizi da–). Bera izan zen emakumeetan azkarrena. Hiru egunetan 120 kilometro egin behar izan zituzten parte-hartzaileek. Lehen eguneko 23 kilometroak ordu bitik behera osatu zituen, eta probako lider ipini zen. Zapatuko tartea izan zen hiruretatik luzeena (70 kilometro), eta hain lasterketa luzean ohikoak diren gorabeherak gainditu, eta lidergoari eutsi zion. Azkenik, domekako 27 kilometroetan ezusteko bat gertatu zitzaion: helmugarako lau kilometroren faltan okerreko bidea hartu zuen. Hala ere, garaiz zuzendu zuen bidea, eta laugarren helmuragatu zen azken etapan. Hiru egunetako denborak gehituta (14.57.05) Silvia Trigueros izan zen onena emakumeetan.

Gizonetan, Zaldai mendi taldeko Erlantz Zaldunbide iurretarra izan zen Durangaldeko ordezkari onena 22. postuan amaituta: 15.30.40.

> KORRIKA

## Eroriko eta guzti, Frades seigarren Abu Dhabin

Bizikletan zihoala erori egin zen arren, minari aurre egin, eta korrikako 20 kilometroak osatu zituen

Joan zen zapatuan Abu Dhabiko (Arabiar Emirerri Batuak) triatloia lehiatu zuen Gurutze Frades iurretarrak. Emakumeetan seigarren eta sailkapen orokorrean 40. amaitu zuen Mugarra Triatloi Taldeko triatletak, 08.40.19ko denboragaz. Ibilbidearen gogortasunari eta beroari ez ezik, minari ere aurre egin behar izan zion. Hasieratik nabaritu zuen aurreikusitako markatik gora ibiliko zela, eta bizikletako 200 kilometroei bizi-bizi ekin zien. Bere aurretik zihoanari denbora jaten zebilela, bat-batean, erori egin zen. Zauri eta guzti aurrera egin zuen. Bizikletako tartea amaitzean "birrinduta" sentitzen zela onartu du Fradesek, baina kosta ahala kosta lasterketa amaitu gura zuen, eta korrikako 20 kilometroak ere osatu zituen.

ADITUAREN TXOKOA



**Kepa Arroitajauregi**

Pilota teknikaria

### Beste final bat

Pilotazale oro, Durangaldekoak batez ere, Donostiako Atano pilotalekura begira gaude. Gaur gauean jokatuko du azken urteetako pilotari bizkaitar mediatikoenak –Berasaluze II– bigarren urtez jarraian finalaurrekotan izateko, momentuz, bere azken finala. Hala esan du berak, gainera, aurtengo txapelketan final asko jokatu izan dituztela jada. Hau, printzipioz, azkena da.

Partidu gaitza dute Pablitok eta bere kide Albisu ataundarrak. Momentuan forma onenean aurkitzen den bikotearen (bikotea bere osotasunean) aurka jokatu beharra dauka berriztarrak (Xala-Zubieta), eta irabaztea nahitaezko du. Horrez gain, biharkora begira geratu behar.

Guztia aurrez lanak ondo egin ez izanaren ondorio, berriztarra ez baitago puntuan. Aukerak hor daude, baina oso murritzak dira. Nire aburuz, penaz diot, aurten Aretxabaleta izango dugu bizkaitarron ordezkari bakarra finalaurrekoetan. Ez beste inor. Titín III-Merino ikusten ditut laugarren bikote lez, beraien grina eta irabazteko goseak pentsarazten dit hori. Ea erratzen naizen.

Bukatzeko, aipatu nahi dut beste berriztar batek ere poza ekarri duela Paristik Durangaldera. Mikel Gonzalezek, Antxia abadiñarra lagun duela, bertako nazioarteko trinkete titulua bereganatu du, Tellier-Benesse frantziarrak menderatuta. Ezker horman bakarrik ez, askorentzat ezezaguna izango den trinketeak ere baditu goi mailako pilotariak Durangaldean.

# OSASUN GIDA

## FISIOTERAPIA

Zainduz

**FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitxa

**Trañabarren 13, 4. blokea,
behea eskuma
48220 MATIENA-ABADIÑO**

**Tel.: 944 657 132 - 686 906 374**

RPS: 119/13

Oreka
Idurre Zabala Amezua

**FISIOTERAPIA
ETA ERREHABILITAZIOA**

*Erditze aurreko eta ostekoa, txizari ezin eustea, traumatologia, kirola, auto istripua, drainatze linfatikoa (basektomia ondoren)...*

**Iturriza, 44 - behea ezkerra
48240 BERRIZ**

**Tel.: 946 225 593**

## PSIKOLOGIA

**JON ARRUABARRENA**

PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA
• Antsietatea, estresa, fobiak
• Depresioa • Eskola arazoak
UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK

**Frantzisko Ibarra, 6 - DURANGO
jon@psikologo.biz - www.psikologo.biz**

**Tel.: 946 033 246 - 629 245 728**

RPS: 62/11

## PODOLOGIA

JON GERRIKAETXEBARRIA PODOLOGO

**JON GERRIKAETXEBARRIA**

Gaixotasunak - Ortopedia
Oin kirurgia
IMQ - SANITAS - ARESA

**Ermodo, 2 - 1 eskuma
48200 DURANGO**

**Tel.: 946 201 100**

RPS: 108/13

PODOLOGIA KLINIKA

**GOIATZ MURUA LETURIAGA**

PODOLOGOA

*Kiropodia, onikopatia, alterazio dermatologikoak eta ibilerako alterazioak*

**Monagotorre, 4 - behea
48200 DURANGO**

**Tel.: 946 203 630**

148/13

## ESTETIKA

AGIRRE KLINIKA
MEDIKUNTZA ESTETIKOA
www.medicinaesteticadurango.com

**Laser berria:**

*Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra*

*Obesitatea-zelulitisa,
Laserra: depilazioa (prezio bereziak), barizeak...
Adinaren kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...*

**Txatxiena, 6
48200 DURANGO**

**Tel.: 946 810 387**

RPS: 16/09

## ODONTOLOGIA

clinicadentalhortzklinika

**B. UNAMUNZAGA
E. ETXEBARRIA**

*ODONTOLOGIA OROKORRA
ETA ESPEZIALIZATUA*

**Muruetatorre, 2 - C behea
48200 DURANGO**

*uecdental@gmail.com*

**Tel.: 946 819 951 Mug.: 717 194 454**

RPS: 145/13



**J.L. URRETA ZABALO**

*MEDIKU ESTOMATOLOGOA
IMQ, PADI (umeen hortz programa)
Ortodontzia*

**Zumalakarregi, 18 - 1. ezk
48200 DURANGO**

**Tel.: 946 812 200**

RPS: 112/13

## OPTIKA

Ke ñu

**ZENTRO OPTIKOA**

*Teknika aitzindariak, kontaktologia, haurren ikusmena, ikusmen terapia, audiometria, NAHIA ZABALA eta AITZIBER ZABALA*

**Arkaraz, 3
48240 BERRIZ**

**Tel.: 946 225 099**

RPS: 162/13

> FUTBOLA

# Lasaitasunaren garaipena gura dute hiru porroten ostean

Lehen itzuli onaren ondoren, bolada txarrean dabil Kulturala; jaitsiera postuak urrun daude, baina garaipen batek konfiantza eta lasaitasuna ekarriko lizkioke



Zapatuan, Beasain hartuko du etxean Durangoko Kulturalak. Kepa Aginako.

> JOSEBA DERTEANO

Durangoko Kulturalak Beasain taldea hartuko du zapatuan, 17:00etan, Tabiran. Segidan hiru partidu galtzetik dator Kulturala. Jaitsiera postuak 15 puntura ditu, playoff postua baino urrutiago, baina, bigarren itzulian, apurka sailkapenean beherantz joan da, eta biharko hiru puntuek ligako azken txanpari konfiantzagaz aurre egiteko lasaitasuna emango liokete Durangoko taldeari.

Ez da erronka erraza izango. Beasain esperientzia handiko taldea da, indartsua eta kalitateduna, eta Lehen Mailan aritu diren jokalariak ditu: Gorka Brit, adibidez. Kulturala, aldiz, oso talde gaztea da: taldearen batez besteko adina ez da 22 urtera heltzen. Aurkariek badakite hori, eta esperientzia faltari etekina ateratzen saiatzen dira.

Biharko partiduari begira hainbat jokalari falta ditu Imanol de la Sota entrenatzaileak; batzuk txartelengatik, eta beste batzuk lesioengatik. Esaterako, Ander Pinillak bosgarren metatartsoa hautsi zuen orain aste bi, eta hilabetez hanka geldi izan behar du.

Inork espero ez zuen lehen itzuli eder baten ostean, bigarren itzulia luze egiten ari zaio Kulturalari. Alderdi askotan taldea denboraldi hasieran baino eginago ikusten du de la Sotak, baina hobekuntza hori ezin dute emaitzetan islatu. Joan zen asteburuan Santutxun jokatutako partidua da horren isla. Galtzen hasi, aldeko penaltia huts egin, hamar jokalarirekin geratu, hala ere, partidua berdintzea lortu, eta Santutxuk 92. minutuan garaipenaren gola sartu zuen, alboko sake batean hasi zen jokaldian.

> DUATLOIA

# Durangon duatloirik ez egitea erabaki du Mugarrak

Garaik, aldiz, eutsi egingo dio uztailaren 5eko probari

Euskal Autonomia Erkidegoan parte-hartzaile gehien izan zuen duatloia bertan behera utzi du Mugarra Triatloi Taldeak. Hilaren 29an zen egitekoa. Trafiko Zuzendaritzatik orduan ezin dela egin adierazi zuten, eta alternatiba bakarra maiatzaren 31ra atzeratzea zen. Egoera aztertu ostean, ez antolatzea erabaki dute: "Nork bere ekitaldia salbatzeko eta data bat zehazteko denok korrika gabiltza, eta aulki joko horretan sartzeari uko egin diogu". Euskadiko federazioaren jarrera kritikatu dute: "Uste dugu horri guztiari buruz federazioak azalpenak eman behar dituela. Ez dugu ulertzen nola dagoen isilik e-mailak eta telefono deiak gori-gori daudenean data berrien bila".

Garaiko triatloi taldeak, ordea, eutsi egingo dio uztailaren 5eko triatloiari. Ez antolatzeko arriskuan zegoen, baina Bizkaiako federazioaren bitartekaritzari esker triatloiari eustea lortu dute.

> SASKIBALOIA

# Zirkinik Bez-ek abesti bat egingo dio Zornotzari

Zirkinik Bez musika talde zornotzarrak abesti bat konposatuko dio Zornotza Saskibaloi Taldeari. Horrela, "aspaldiko desioa" beteko du klubak, eta "eskerrak" eman dizkie musika taldeko kideei "eskainitako erraztasun guztiengatik". Zirkinik Bez taldeko gitarrista, Dani Pascual, saskibaloi klubeko gazte mailetan jokatutakoa da. Markel Atutxa bateria-jotzaileak, Ander Olmo baxu-jotzaileak, Erlantz Esparta trikitilariak eta Maialen Kaltzakorta abeslariak osatzen dute taldea.

> FUTBOLA

# Promoziotik gertu dago Iurretako, liderrari irabazita

Joan zen asteburuan garaipen handia lortu zuen Iurretakok, Erandion, liderraren etxean: 0-2. Jardunaldi horretan, promozio postuan zegoen Santurtzik ere ezin izan zuen irabazi Elorrion: 1-1. Ondorioz, Iurretako Erandiorengandik bost puntura, eta promozioan jarraitzen duen Santurtzirengandik lau puntura kokatu da, seigarren tokian. Zapatuan, 17:00etan, Gatika hartuko dute etxean. Santurtzik goian dabilen Somorrostro hartuko du.

> MENDI LASTERKETA

# Dabid García onena Beasaingo lasterketan

Beasaingo Arriaran auzoan jokatutako mendi lasterketan (15,3 km) nagusitasunez gailendu zen Dabid García durangarra, joan zen asteburuan. 1.04.26ko denboragaz minutu biko aldea atera zion bigarren sailkatu zen Mikel Albeniz donostiarrari. Podiuma Endika Gartzia lasartearrak osatu zuen: 1.07.04. Guztira 255 korrikalarik parte hartu zuten Arriarango mendi lasterketan.

## AGENDA

> FUTBOLA

**HIRUGARREN MAILA**

**Durangoko Kulturala - Beasain**
· Zapatuan, 17:00etan, Tabiran.

**OHOREZKO MAILA**

**Iurretako - Gatika**
· Zapatuan, 17:00etan, Larrakozelaian.

**MAILA GORENA**

**Abadiño - Larramendi**
· Zapatuan, 16:30ean, Astolan.

**LEHEN ERREGIONALA**

**Elorrio - Leioako emakumeak**
· Zapatuan, 18:00etan, Eleizalden.

**HIRUGARREN ERREGIONALA**

**Amorebieta B - Elorrio B**
· Domekan, 18:15ean, Txolonen.

**Zaldua B - La Salle**
· Zapatuan, 17:00etan, Solobarrian.

> ARETO FUTBOLA

**HIRUGARREN MAILA**

**Sasikoa - Buruntza**
· Zapatuan, 19:30ean, Landakon.

**Mallabia - Elorrioko Buskantza**
· Domekan, 18:00etan, Zaldibarko kiroldegian.

**MAILA GORENA**

**Elorrioko Buskantza - Elorrietako Senses**
· Zapatuan, 18:00etan, Elorrioko udal kiroldegian.

**Presion Break - Mamarigako**
· Zapatuan, 16:40an, Berrizburun.

**Sasikoa B - Kurutziaga**
· Zapatuan, 17:30ean, Landakon.

**LEHEN ERREGIONALA**

**Dantzari - Gernikako Lagunak**
· Barikuan, 19:30ean, Iurretako Lanbide Heziketa Institutuan.

> ERRUGBIA

**EUSKAL LIGA**

**DRT - Funes R.C.**
· Zapatuan, 16:00etan, Arripausuetan.

> PILOTA

**SAN PRUDENTZIO TORNEOA**

**Binaka kadeteak:**
**- Bellido-Eizagirre / Iurrebaso-Sedano.**
**Lau t'erdian seniorrak:**
**- Amantegi-Lopez**
**- Jauregi - Dorronsoro**
· Domekan, 16:30ean, Traña-Matienako pilotalekuan.








ALKIMAX
Alquilamos soluciones
BERRIA
8TN
HONDEAMAKINA
gomazko beldarrak
ALKIMAX
ADAR-
BIRRINTZAILEA
8 zentimetroraino
ALKIMAX
ENBORRAK
ZATITZEKO MAKINA
Elektrikoa
Monofasikoa
